

uk

229. zenbakia / 2013ko martxoaren 12a



URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urte osoan argazki zahar eta barriak
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
Urtean 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz **neuk ere gura dot** **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**

Izan gaitezen praktikoak.
Dacia Sandero berriaren fidagarritasun osoa



4.700€¹ **PIVE Planarekin**

- ESP, ABS, SAFE
- 4 airbag
- Eguneko argiak
- Direkzio lagundua

3 URTEKO² BERMEA EDO 100.000 km

Dacia Sandero berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 4,8 eta 5,8 bitartekoa. CO₂ emisioa (gr/km) 99 eta 135 bitartekoa.

1. Adierazitako PSPa penintsularako eta Balear Uharteetarako da, eta 13/02/28ra arte iraungo du eskaintzak, partikular batek edo langile autonomo batek Sandero Base 1.2 55 kW (75 ZP) berria erosi dezan, PIVE Planeko baldintzak, deskontuak eta zergak kontuan hartuz eta RCI Banque S.A. Sucursal España enakundeak finantzatuz. Gukienez finantzatu beharreko zenbatekoa 4.000 €-koa izango da. RESCAK diruz lagundutako deskontua, finantziarioari lotuta dagoena eta Sandero Berria gamako edozein ibilgailuri aplikagarri ziona. Irudiko modeloa: Sandero Laurate 1.2 75 ZP berria (PSPa PIVE Planarekin: 7.050 €).

2. Bermea lehen bi urteetarako, kilometro-kopurua edozein dela ere. Bigarren urteik aurrera, 2 baldintzetako bat gertatzen denean amaituko da bermea. **Daciak gomendatzen du eif**

BILBO BERRI. Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Devstu - Bilbo www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO. Iparragirre Etorbidea, 24, tel. 94 480 42 90, Leioa www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martiakoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Hodei Torres, Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamosas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Bizkaiko Foru Aukundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Kultura Saila
 Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Plentziako Zubi Zuriko lamina apurtuak.
6. FACEGUK. Zenbat kilometro egingo duzu Korrikan?
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako Kasinoa.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Bego Alonso.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Korrikaren eskualde mailako aurkezpena, Erandion.
28. ARGAZKIA. Trena, elurtea Leioan.
30. BERBETAN. Itziar Idiazabal.
34. FOTOGRAFIA. Roberto Marcos.
40. SAKONEAN. Industria ondarea gurean.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Irudiaz eta Euskaraz bloga
43. MUSIKA. The Great Barrier Sopelan.
44. LIBURUAK. Ramon Saizarbitoria Algortan.
45. KIROLAK. Getxo Skateboarder egitasmoa.
46. ELKARRIZKETA. Antoine Bastero.
47. JENTILKOKA. Basajaun eta Basandere.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Txipiroia eta tipula.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Emakumeak solasean, Algortako kasinoan, 1950.
54. AITORMENAK. Edume Garmendia.

Azala: Roberto Marcos

www.ukaldizkaria.biz



30 Itziar Idiazabal

Berbetan

Leioan bizi eta EHUren Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrako koordinatzailea da.



11 Bego Alonso



46 Antoine Bastero

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

K.Olate

Hamar urte, hamaika laido

Otsailean bete dira hamar urte estatuak Euskaldunon Egunkaria itxi eta hamar lagun bortizki atxilotu zituela. Une lazgarrienak Madrilgo ziegetako egunak izan baziren ere, Egunkariako arduradunen kalbarioak luze joko zuen; hain luze ere, non auzibidean dauzkaten hainbat lagun oraindik auzi nagusitik berezitateko atal ekonomikoan.

Bidean geratu dira euskarazko eguneroko bakarraren eraistea, espexeratzekak, urteetako lanaren suntsitzea, berme judizialez jantzitako estortsioa, muntaia huts baino ez ziren akusazioak gezurtatzeko galdu behar izandako denbora, dirua eta indarra. Zazpi urte geroago etorri zen epaiak auzipean jarraitzen zuten bost kideei emandako absoluzioa, eta auzibidearen zentzugabekeria eta salatutako tortura eta tratu txarren sinesgarritasunaz esandakoak garaipen juridiko eta moral itzela izan ziren. “Nork ordainduko du, baina, –galdetzen zuen Joan Mari Torrealdaik urteurrenako ekitaldian– egindako kaltea, kalte pertsonala, morala, ekonomikoa, linguistikoa, kulturala? Noizko erreparazioa?”.

Galderok erantzunik gabe geratuko direlakoan nago. Aznarren agintaldian euskal antolakunde eta proiektuen aurkako gurutzada deitua izan zen, eta berak gustura sinatuko zukeen “dena da ETA” goiburupean; deiak Espainiako indar biziaren atxikimendu kartsu bezain baldintzagabea jaso zuen; gurutzada hartan gertatu zen Egunkariaren aurkako basakeria, Egin, AEK, Josemi Zumalabe edota Martin Ugalde Parkearen aurka burututakoak bezala. Helburua etsaiaren alorrean ahalik eta kalte handiena egitea izaki, ez zieten zertan erreparatu gurutzatuek egia, eskubideak, bermeak eta horrelako txikikeriei, aldez aurretik baitzekiten Monforteko Simonen jarraitzaile haiek barkamen osoaren jabe zirela egiten zutena egiten zutela ere.

Egunkaria auzikoan kalte-ordainaren eska-bideak ez ditu, nonbait, azken aukerak agortu auzitegietan, zuzenbide estatu lardats honetatik ezin bada ere gehiegirik itxaron; auzi motibo gutxiago dago sarraskia eragin zute-



netako inorengandik gaur hainbesteko menta duten errekonozimendu eta erreparaziozko imintzio txikiena ere espero izateko, Martxelo Otamendik eskatu duen moduan.

Barkamenik eskatzeko inolako motiborik ikusiko ez duena Angel Acebes izango da; izan ere, Iberdrola “euskal enpresa enblematikoa” fitxatu baitu kontseilari gisa Egunkariaren eta bere arduradunen suntsitzea erronka pertsonaltzat hartu zuen Barne ministroa, hilean 27.000 euro inguruko or-

dainsari mardularekin. BBK ohia akziodun eta agintari nazionalistak itxuraz hain gertuko dituen enpresak erakutsi dion begiramen ikusita, sendotu egingo zitzaien zalantzarik gabe Acebes jaunari orain hamar urte egindakoa, orduan ahotsa hanpatuta aldarrikatu zuen moduan, benetan “euskararen eta euskal kulturaren alde” burututako ekarpen eskergarria izan zenaren konbikzioa.

Luzea da, bistan denez, geure burua errepetarazteko egin beharko dugun bidea. ○

gu geu

Euskararen sua

Euskararen gaineko hainbat gogoetaren eta euskararen aldeko zenbait ekimenen barri jasotzen du UK honek. Atzoko, gaurko eta biharkoak; egindakoak, eginbeharrekoak eta egitekoak... Gure esku daudenak, besteen ahotik datozenak, lepo-gaineratzen dizkigutenak... Gu behintzat hasi gara berotzen; eta beroketa-arietak egiten... Korrika hilaren 22an pasako da eskualdetik (aurreko UK-n duzue ibilbidearen eta ordutegiaren informazioa); eta luzatze-arietak ere egin beharko ditugu... Ez dakigun/dakion ezer apur, murriz, gutxitu, desager... Egur piloa jaso dugu... Euskararen sua amata ez dadin erabiliko dugu!

UK-ko lan-taldea

***OHARRA:** UK-ko 227. zenbakian Miguel Azeraren argazkiak atara genituen, baina webgunea oker zegoen; hauxe da helbide zuzena: blog.conacentofotografia.com



PLENTZIA, 2013KO OTSAILAREN 28A

Haizeak eroan zituenekoa...! Enbata ederrak sartzen dira itsasotik eta euriagaz batera dakartza haize ufada bortitzak. Horrelakoak bizi izan ditugu urte hasieran eta triskantsaren bat edo beste eragin du, berbarako, Plentzian: Zubi Zuriko erakusketako lamina batzuk apurtu ziu. Horiek konpondu eta, aldi beran, batzuen edukia aldatzeko eskatu du Bilduk; hau da, 2011ko uztailearen 15eko Arartekoaren ebazpena aintzat hartzeko eskatu dio Udalari. Arartekoak gomendatu zuen laminak genero ikuspegitik berrazter zitzaten, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioari jarraituz. ○ / Argazkia: Hodei Torres

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zenbat kilometro egingo duzu Korrikan?



Maria Encinas Blanco

> Laborategi-teknikaria

Eskualdera datorren egunean parte hartzen saiatuko naiz, barikuan. Gustuko dut korrika egitea eta kilometro bi egin gura dut oraingoan, baina ez dut uste gehiago egiteko gai izango naizenik; saiatuko naiz, behintzat.



Laura Iglesias Iturralde

> Administraria

Orain arte ez dut parte hartu, baina ezagutzen dut Korrika. Aurten parte hartu gura nuke, baina barikuan lana daukat eta ez dakit ahal izango dudan. Ez dakit umeak eskolagaz aterako diren, bestela danok batera parte hartzen saiatuko gara.



Cristina Martinez Bouzas

> Laborategi-langilea

Nik kilometro bi egiteko asmoa daukat Korrikan, osasunerako oso ona da-eta. Asteburuetan korrika egitera joaten naiz eta entrenamendu bezala balio izan du. Beraz, ea zenbat korrika egiteko gai naizen!



Jose Gonzalez Gomez

> Fisikaria

Asmoa da lau kilometro egitea. Beti parte hartzen dut Korrikan, umeakaz batera; espero dut oraingoan ere eura-kaz joatea. Horretarako, lanean ordu pare bat libre eskatuko dut. Batzuetan, korrika egin ostean, bizikleta hartu eta beste herri batera hurbiltzen gara Korrikan barriro sartzeko.



Vanesa Garin Arias

> Ume-hezitzailea

Egia esan, ez dut oso gustuko korrika egitea, baina saiatuko naiz kilometro pare bat egiten; gehiago ez dut uste. Txikitan parte hartzen nuen eta gustuko nuen. Baina Korrika Kulturalaren ekitaldietara hurbilduko naiz, gauza asko antolatuta dute-eta.



Maria Ramiro Diaz

> Eskola-harreragilea

Nik ez dut batere gustuko korrika egitea eta, normalean, etxeko leihotik ikusten dut lasterketa; handik oi huak botatzen dizkiet korrikalariei eta txalo egiten dut. Baina, aurten, bi urteko alaba daukadenez, beharbada animatuko naiz korrikara, beragaz batera.



Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIAKO KASINOA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kalea etxe



Berango, 2013ko otsaila

Testua: **Inazio Vidal Gurrutxaga** / Argazkia: **Hodei Torres**

* Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Krisia gora, krisia behera
eta zenbat gira bira,
(e)ta ematen du luzarorako
daukala honek segida...
Denbora luzez egoten gara
gure zibilborrei begira;
baina hauentzat lehen beltza zena
gehiago belzten ari da,
munduan asko etengabeko
krisian bizi baitira.

Argazki bate(a)n ikus daiteke
mundu honen desoreka:
bizilekutzat graffiti handiz
atondutako pareta,
bertan manta bat eta barruan
gizon bat dago gordeta.
Ni argazkia begiraturik
jartzen naiz kezka beteta,
bihar agian jende gehiago
berdin egongo da-eta.

Horrelakoak azken boladan
ikusi ditugu mila,
nahiz eta denok pentsatu dugun:
"hau behingoz buka dadila!";
oraindik oso ilun sumatzen
da etorkizun hurbila...
(e)ta argazkian lo geratu da
manta artean mutila,
bihar agian aterako da
leku hobe baten bila.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

erakusketa > Oteiza Bilbon



Info+: www.michelmejuto.com

Jorge Oteiza Enbilen (Orio, 1908–Donostia, 2003) 20 lan daude ikusgai Bilboko Michel Mejuto galerian. 18 eskulturek eta 2 marrazkik osatzen dute erakusketa, "obrak Bizkaia, Gipuzkoa eta Madrilekoak dira, eta askotarikoak dira, hala nola, kutxa hutsak eta metafisikoak, bai eta alabastroz eta berunez eginiko piezak. Horrez gainera, Arantzazuko apostolutzaren gaineko ikerketa bat ere izango

da", Nontzeberri agerkariak jakitera emon duenez. Oriokoaren lanok martxoaren 27ra arte egongo dira ikusgai Juan de Ajuriaguerra kaleko 18. zenbakian dagoen erakusketa-aretoan. Apirilaren 9an beteko da eskultore edo zizelkari, poeta, saiogile, artista zirikatzailearen heriotzaren 10. urteurrena, eta erakusketa hori da Bilbon egiten den bere lanen gaineko handienetakoa. ○

hirigintza-jardunaldiak > martxoak 14-16

Lurralde antolaketa-hirigintzaren gaineko Kosta ahala Kosta jardunaldiak antolatu ditu Uribe Kostako EH Bilduk hilaren 14, 15 eta 16rako. Lehen eguneko ekimena Sopolako Kurtzio kultur etxean egingo dute (19:00) eta gai hauek landuko dituzte: Uribe Kostako bilakaera urbanistikoa eta Lurralde Antolaketagaz lotutako borrokak (Lamiako Makroaraztegiari ez!, Txipio Bai!, PTPrik ez! eta Antinukle-

arrak Lemoiz). Bigarren egunean Algortako Villamonte kultur etxean batuko dira (19:00), hauek berbaiz: Hiri eredu, Hondakinen kudeaketa eta Lurralde Antolaketa, Antolaketa eta Lehen Sektorea Uribe Kostan, eta Hirigintza genero ikuspegitik. Azkena Urdulizko kultur etxean izango da (10:30) eta Parte-hartzeko mekanismoen gaia eta "Zer behar dugu Uribe Kostan?" galdera izango dituzte jorragai. ○



Uribe Kostako hirigintza-antolaketa gogoetagai

euskal udalekuak > izen-emotea zabalik



Info+: www.euskaludalekuak.org

Dagoeneko Euskal Udalekuetan izena emoteko epea zabalik dago, eta "txandak bete arte mantenduko da zabalik". Aurten Abaigarren, Bernedon eta Goñin egingo dituzte eta 1995 eta 2005 urteen bitartean jaiotako umeei begirako udalekuak dira. Antolatzaileek azaldu legez, "Euskara eta euskal kultura dira Euskal Udalekuen izateko arrazoi nagusia. Horregatik, gure udalekuan konstante bat da euskaraz ko-

munikatzea (komunikaziorako hizkuntz bakarria) eta euskal kulturaren ezagutza eta hurbiltasuna. Txanda guztietan zehar, euskara maitatzen eta honen erabilera sustatzen saiatzen gara, eta hainbat ekintza egiten ditugu euskal kulturaren oinarrituta: korrika txikiak, herri kirolak, euskalki festa, Ternuara eta Orreagako gudura bidaia, akelarreak...". Izena emoterakoan, adi txanden adin tarteei! ○

Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90 €

BEZ BARNE

cianoplan

global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaia... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

E!

**ERANDIO ELIZATEKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA**

**XII. IPUIN LEHIAKETA
ETA
V. BERTSOPAPER LEHIAKETA**

**2013
MMXIII**

Azken eguna: 2013ko martxoaren 22a

Informazioa: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

Babesleak:

**BFA
DFB**
Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Sela
Departamento de Cultura

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
KULTURA SAIA
Hizuntza Politikoak: Sifurruordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Visacancillería de Política Lingüística

Oinarriak ikusteko eskaneatu kode hau eskuko telefonoarekin



[erretratu]

"Kotxe-karnetaren azterketa 18 urte bete nituen egun berean egin nuen, eta ez nuen lehenago egin ezin nuelako!"

Bego Alonso > Hurrengo geltokia... Sopolbusa!

Sopolako hondartzak herri-guneagaz lotzeko asmoz, Sopolbus autobus-zerbitzua martxan jarri zuen Udalak orain bost urte. Surf-oholak, eguzkitakoak, eskuoihalak eta txankletadun karramarroak ziren Sopolbusaren bidaiari gehienak, hasieran udan bakarrik eskaintzen zuelako zerbitzua. Baina iaz, Udalak zerbitzua urte osora luzatzea erabaki zuen, Arriatera, Sopolmar eta bestelako auzoak lotzeko helburuagaz. Bego Alonso gidariak dioen legez, zerbitzuak onura ugari ekarri ditu: *"Auzo hauek urrun eta sakabanatuta daude, beharrezkoa da"*. Gero eta gehiago dira, bere iritziz, hondartza-auzoetara bizitzera doazen 'udatiarrak', krisiaren eraginez: *"Hasieran, egun batzuetan pertsona bi bakarrik eramaten nituen, baina orain 15 pertsonatik gora eramaten dut egunero"*. Alonsok lau urte daroa Sopolbuseko gidari; beti gustatu zaio bolantearen atzean jartzea: *"Gidatzeko-karnet guztiak ditut. Kotxe-karnetaren azterketa 18 urte bete nituen egun berean egin nuen, eta ez nuen lehenago egin ezin nuelako!"*. Sopoloztar gaztea, beraz, gustura dago bere beharraz: *"Dibertigarria da! Autobusera igotzen diren auzokideakaz berba egitea gustatzen zait. 'Gidariagaz berbarik ez egin' dioten kartelak ez ditut onartzen!"*. Hori bai, udan, eguraldi ona dagoenean, ahoa urtzen zaio hondartza ikusten duenean; *"Busa aparkatzen dut... eta zuzenean hondartzara joaten naiz!"*. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Hodei Torres**

Zazpi urtez soloa lantzen...

Getxoko Txorimalo gaztetxeak **zazpi urte** bete du **eta ospatzera** doa, **apirilaren 2tik 5era**, hainbat ekitaldigaz, **gaztetxean** bertan eta **Algortan**; gainera, **bideoa egin dute** eta **interneten** ikus daiteke

Koskortzen ari zaigu gure Txorimalo eta apirila hasteagaz batera izango da urtebetetze-jaia. Ume eta gazteentzako ekitaldiak antolatu dituzte gaztetxean eta **Algortan**: jolasak, pailazoak, bazkaria, kontzertuak, antzerkia, ekitaldia, tortilla lehiaketa e.a. Ekimenok iragartzeko bideoa bueltaka dabil interneten. Ondo pasa, gazte eta ez horren gazte!

Badira zazpi urte txorimaloa landatu zutela Getxoko etxe zahar hartan, gazteen jagole izateko bihurtu asmoz. Etxea okupatu eta gaztetxe egin zuten, euren ametsak egia bihurtu guran. Orduetik joan dira hamaika egun eta gau, beste hainbeste ekitaldi, eztabaida eta parrandagaz batera. Zazpi urte bete du Txorimalo gaztetxeak eta koskortzen hasi da: merezi bezala ospatzeko garaia iritsi zaio.

Ekitaldi batez hasiko dute urteurrena apirilaren 2an, martitzenean, bertsolari, dantzari eta trakagaz; bideo-emanaldia eta luntxa ere egingo dituzte. Biharamuna, hilaren 3a, soloa atontzeko eguna izango da, ondoren indabak landatu ahal izateko; indaba-janean dastatuko dituzte horiek udagoiengan, Indabadan.

Eguena, barriz, Herri-Eguna izango da, Algortako Geltokia plazan. Goizean tailerrak egongo dira umeentzat eta, arrastian, Koblakari ikuskizuna, hori ere umeentzat. Gainera, baliteke iluntzean beste ekitaldiren bat antolatzea gaztetxean.

Barikuan, apirilaren 5ean, oster, gaz-



Kontzertu eta bazkaritarako txartelak salgai daude ohiko tabernetan

tetxean izango dira ekitaldiak, arrastian. Ordurako antzerkia prestatuko du herriko talde batek: 20:00etan hasiko da eta, horren ostean, Moby Dick Algortako abeslariak kantatuko du.

«Moby Dick-ek joko du apirilaren 5ean, eta Hamaiketan eta Stupenda Jones-ek apirilaren 6an»

Ezin esan egitarau makala prestatu ez dutenik txorimaloek, baina egun handia zapatua izango da. Goizean hasiko dira tortilla-txapelketagaz, 11:00etan. Bazkaria ere egingo dute egun luzeari aurre egiteko indarrak batzeko eta, horren ostean, lehiaketako sariak emongo dituzte. Jarrain dantza gidatuak izango dira, kontzertuak hasi bitarte; horrenbestez, ez galdu

aukera dantza politen bat ikasteko eta ondo pasatzeko. Hamaiketan herriko musika taldea eta Stupenda Jones igoko dira taulara 20:30etik aurrera, hotza kendu eta txorimaloak areago berotzeko. Eta gogoia daukanak gaupasarako aukera ere izango du, Prince anaiek bazterrak nahastu eta gaua girotuko baitute.

Kontzerturako zein bazkaritarako txartelak bosna euro balio dute, baina, biak erosiz gero, 8 euro besterik ez da ordaindu behar; ohiko tabernetan eros daitezke. Aurten, gainera, ateratako dirua Portu Zaharreko txosnari ipinitako isuna ordaintzeko erabiliko da. Ospakizunen artean, bideo bat ere osatu dute gaztetxe-ko lagunek eta interneten ikus daiteke, besteak beste, euren blogean. ○

Info+: txorimalogaztetxea.blogspot.com

Gazteentzako eskaintza

kaleratu du Gazteria Zerbitzuak



Ikasteko estrategien gaineko tailerra da aurtengo nobedadea

Martxotik ekainera arteko aisialdirako jardueren eskaintza kaleratu du Gazteria Zerbitzuak: 9 eta 30 urte bitarteko ume, nerabe eta gazteentzako zortzi jardura eskainiko ditu, gehienak orain arteko berak. Aurtengo nobedadea izango da ikasketa arrakastatsua izateko estrategiei buruzko tailerra, 9 eta 13 urte bitarteko umei zuzendutakoa, eta euskaraz.

Tailerraren helburua izango da ikasketetarako eta bizitzaren gainerako esparruetarako tresna erabilgarriak euren esku ipintzea. Besteak beste, ondokoak landuko dituzte: adimen emozionala, irakurketa azkarra eta ulermena, komunikazio eraginkorrerako teknikak edota ikasteko teknikak. Martxoaren 12, 14, 19 eta 21ean egingo da Gaztelekuan.

Bestalde, ohiko ikastaroak ere eskaini-

ko dituzte. Martxoan izango da sukaldarritza-ikastaroa eta abiatuko dute perkusio-tailerra. Apirilean, barriz, marrazketa eta elikagaiak erabiltzeko ikastaroak egingo dira eta, gainera, bideosormen tailerra hasiko da; azken hori maiatzera arte luzatuko da. Azkenik, maiatzean bertan ekingo diete makillajea eta larru-lanketa tailerrei, eta ekainera arte iraungo dute.

Ikasteko estrategiei buruzko ikastaroz gainera, euskaraz izango dira bideosormena, larru-lanketa eta makillajeari buruzko tailerrak ere. Danak egingo dira Gaztelekuan, sukaldarritza ikastaroa izan ezik, hori Fadura jatetxean izango da-eta. Izena emon behar da Gazte Informazio Bulegoan (Algortako etorbidea) edota udalaren webgunearen bitartez, leku danak bete arte: www.getxo.net. ○

SAHARAR HERRIAGAZ ELKARTASUNA

Otsailaren 27an bete ziren 37 urte Arabiar Errepublikako Sahararra Udaleko Osoko Bilkurak saharar herriagaz elkartasun adierazpena egin zuen. Beren-beregi, Saharako herriaren askatasuna eskatu zuen eta Marokok okupatutako lurraldeetako sahararren eskubideak aldarrikatu zituen, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea berretsi zuen, Marokori eskatu zion preso "politikoak" askatzeko eta, Espainiako gobernuari, Nazio Batuen ebazpenaren arabera gatazka konpontzeko prozesua babesteko. Gainera, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren gobernu aintzatetsi eta Fronte Polisario kideak babestu zituen.

GAZTEENTZAKO BALIABIDE-GIDA

Baliabide-gida argitaratu du Gazteria Zerbitzuak gazteentzat. Liburuxkan jasotzen dira: tokiko elkarten baliabideei buruzko informazioa, gazteen intereseko elkarteak edo kirol-taldeak; jardueraren zati bat edo guztia gazteei begira egiten duten udal-zerbitzuak; gazteentzako ekipamenduak eta informazio nahiz orientazio-zerbitzuak. Gida eskuragarri dago liburutegietan, Kultur Etxean eta Gazte Informazio Bulegoan. Gainera, eskatzen duen orori bidaliko diote: udal webgunearen (www.getxo.net) bitartez eskatu behar da, Gazteria atalean.

GETXO ANTZOKIAREN 4B FASEA ONARTUTA

Getxo Antzokiaren 4B faseari dagokien proiektua onartu du Udala Gobernuak eta lanak esleitzeko lehiaketa deitu du; aurrekontua sei milioi euro ingurukoa izango da eta berau garatzeko epea 52 astekoa. Antzokiaren eta musika-eskolaren azkenaurreko fasea da eta 4C faseagaz amaituko dute eraikina. Horren ostean, ingurunea urbanizatuko dute eta aurreikusitako 2015ean amaituta egotea, bai Getxo Antzokia, bai musika-eskola.

Info+: www.getxo.net



Beherapenak

arropa salgai 12 eta 50 euro bitartean

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Amaia Garcia Uriondo > irrintzi-tailerreko irakaslea

“Irrintzia sinadura bezalakoa da, bakoitzak bere estiloa eta tinbrea dauka”



Algortan emon du irrintzi-tailerra otsailean

Bermeotarra da Amaia Garcia Uriondo eta irrintziak botatzen irakastera etorri zen Getxora otsailean. Botatzen irakastera? Beno, horretara eta gehiagora. Irrintzia zer den, zertarako erabiltzen zen eta erabiltzen den, non egiten den, zer mota dagoen, e.a. Teoria asko ere badauka tailerrak, irrintzi-botatzen ikasteaz gainera, zergatik egiten den irakatsi gura du Garciak. Eta bere kabuz batu du informazioa, handik eta hemendik. Egun, hiru pertsona baino ez dabil horrelako ikastaroak emoten Euskal Herrian, eta oraindino aportatzeko asko ei dago.

—Zelan hasi zinen irrintzi-ikastaroetan?
—2006an Gernikan antolatu zuten ikastaroa berbalagunek, Nati Ibarrak emoten zuten. Zoritxarrez, hil zen, eta niri proposatu zidaten jarraitzea. Natiren bideari jarraitu, eta beste pertsona batzuek harremanetan ipini naiz: fisioterapeuta bat edota irrintziari buruz ikerketa egiten ari den nafar foniatra bat. Ikerketaren arabera, irrintzia da doinu bakarra “m” armoniko formaduna: beste oihi mota batek ere ez dauka forma hori. Gainera, irrintzia modu terapeutikoan erabil leike-

la ere badio: bolumen jakin batera ailega ezin dana, irrintziagaz ikasiko lukeela aldarri egiten. Bestalde, txalaparta eta adarragaz ere ibiltzen gara. Eta beste pertsona batzuek ere banabil harremanetan, irrintziaren alderdiak ezagutzeko, adibidez: berbazko irrintzia, erabilerak, e.a.
—Eta zein erabilerak dauka irrintziak?
—Guk beti dugu erronmerietan, baina aurretik erabilerak bat zeukan irrintziak. Entziklopedietan jasota daude batzuk. Adibidez, artzainek erabiltzen zuten jakituko pertsonen kokapena, zein distantzia-

tara zeuden edo nor zen, izan ere, irrintzia sinadura bezalakoa da: bakoitzak bere estiloa eta tinbrea dauka.

—Euskal Herritik kanpora ere egiten dute irrintzi?

—Bai, leku askotan. Adibidez, Galizian *aturuxo* esaten diote eta antzeko erabilerak dauka: herri txikien artean komunikatze-

**«Erabili da arerioa
ikartzeko, ospatzeko,
komunikatzeko e.a.»**

ko erabiltzen dute, garaipena ospatzeko, baita bide-lapurak uxatzeko ere. Horretarako ere erabiltzen ei zuten hemen, arerioa ikartzeko. Gurearen antzekoa izan arren aldatetak dauzka. Kantabrian, Europako beste hainbat lekutan eta Afrikan ere egiten dute irrintzi.

—Ikastaroa teorikoa ere bada?

—Bai. Irrintzia zer den ezagutzen dugu, eta botatzen ikasten dugu. Gure gorputzagaz zer gertatzen den ikusten dugu lehenik: arnas artean, normalean minutuko 22 mugimendu egiten ditu diafragmak, behera egiten du eta biriken hezurdurak aurrera; 3 segundoan behin egiten dugu baina, irrintzia botatzean, denbora hori luzatzen da, arnasaldi bakarrean egiten da gainera. Errekorra 28 segundotan dago eta lehiaketetan 20 segundotik gorako irrintziak puntuatzen dira. Haize-fluxua eta presioa kontrolatu behar dira. Italiako karusoek definituta daukate teknika hau, eurek erabilitako bera da: arnasketako euskarri teknika. Ez dago patroirik, baina segurua da irrintziak hiru parte dituela: hasieran baxuago egiten da eta gero bolumena eta tonua igotzen doaz; lehen parte biak komunak dira, azkena da aldatzen dena, pertsona bakoitzaren adierazpena, norberaren sinadura. ○

Erasoen aurrean...

Autodefentsa feminista ikastaroa egingo dute Algortan martxoaren 25ean eta 26an



Ikuspegi feministatik garatuko da ikastaroa

Indarkeriaren erroetara jo eta beragaz amaitzeko beharrezko jokabide, jarrera eta tresna multzoa da autodefentsa feminista. “Autodefentsaren bidez aurrera egin dezakegu, gure autoestimua indartu egiten da eta jendartearen ezarritako dauden generoaren arabera rolen inguruko kontzientzia hartzea edota esnatzea suposatzen du”, Bilgune Feministako lagunek diotenez.

Horregatik eta Martxoaren 8a izan dela baliatuz, autodefentsa feminista ikastaroa egingo dute martxoaren 25ean eta 26an emakumeentzat. Parte hartu gura dutenek Algortako Bilguneagaz harremanetan ipin daitezke, euren helbide

elektronikora mezua bidaliz, martxoaren 18a baino lehen.

Adin, kolore nahiz kultura ezberdinetakoak izan, indarkeriaren ondorioak emakume guztiak pairatzen dituztela argitu du Bilgune Feministak: “Erasotzen bagaituzte defendatu beharra dugu, ezin dugu gure segurtasuna eta bizitza beste batzuen menpe utzi. Arazo sozial honi aurre egiteko beharrezkoa da, norberaren defendatzeko gaitasuna trebatzeagaz batera, emakumeok antolatzea, gure artean babestea, taldean eztabaidatzea eta espazio komunak eraikitzea”. ○

Izena emoteko: bfalgorta@gmail.com

GETXO ZUZENEAN! ETA SAN PATRIZIO EGUNEKO KONTZERTUA

Kontzertu bi ikusteko aukera dago oraindino hil honetan Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Lehen da hilaren 14an, Romoko Billares tabernan: Rudy Mental taldeak joko du. Bigarrena, barriz, martxoaren 21ean izango da Algortako Usategi tabernan eta Arbianek joko du. Biak hasiko dira 20:00etan eta sartzea doakoa izango da. Bestalde, zapatua 16an San Patrizio egunez, folk-kontzertua antolatu dute, beste behin ere, Algortako The Piper's Irish Puben: Blanca Altable eta Chuchik joko dute 22:00etan eta doan.

ORPHENICA LYRA-REN POESIA-ERREZITALDIA MARTXOAREN 21EAN

Munduko Poesia Eguna ospatuko dute martxoaren 21ean Algortako kultur etxean, olerki eta musika erreztaldi batez: Orphenica Lyra eskainiko du *Lujo, calma y voluptuosidad* emanaldia 19:00etatik aurrera eta doan. Charles Baudelaireren poema eta prosazko olerkiak bildu dituzte ikuskizunerako, baita Claude Debussyren hainbat piano-preludio ere, haren jaiotzaren 150. urteurrena dela-eta. Goza egizu!

Info+: www.getxo.net

PAKO ARISTIREN HITZALDIA ALGORTAKO KULTUR ETXEAN

Martxoaren 22an Algorta bisitatuko du Pako Aristi idazle eta kazetariak. Izan ere, *Independenzia, ondorengoei utzi behar geniekeen herentzia* hitzaldia eskainiko du kultur etxean, 19:00etatik aurrera. Bolivartiar Ikaskuntza Elkarteak antolatu du ekimena, Getxoko Udalaren laguntzagaz. Esatea ikastaro ziklo baten baitan kokatu dutela hitzaldi hau: urte osoan zehar garatuko dute sei ekintzaren bitartez eta horien barri emongo dugu UK-ko hurrengo zenbakietan.

Info+: www.bolibar.org

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Gorka Ganso > clown-a

“Istorio hunkigarria da *Babia* eta aldi berean oso dibertigarria, bisuala eta ikusgarria”

Martxoaren 24an umorez beteko dute Kultur Leioako taula Gorka Ganso algortarrak eta Txefo Rodriguezek, *Babia* obra estreinatu barriagaz. “*Barre-argaretatik samurtasunera garamatzaten egunerokotasuneko heroiak*” dakarzkigu beti Gansok, “*inozo eta gardenak*”.

—Babian ei daude pertsonaiak lan honetan, zergatik?

—Komedia da *Babia* eta bi pertsonaiaren istorioa kontatzen du: bere unibertsoan isolaturik bizi dira, pixka bat ausente, nolabait babian. Lantegi batean daude eta, hain zuzen, bizitza aurrera daramate lana daukatelako. Baina, egun batean, lana bukatzen denean, bizitza aldatzen zaie.

—Berbarik bako lana da; zailagoa da istorioak kontatzea hitzik esan barik?

—Keinu asko erabiltzen dugu, obra oso bisuala da. Lehenengoz egiten ari gara hitz bako lan bat gure antzerki-konpainian. Asmoa da antzerkiaren esparruan aurrerapausoak emotea eta gauza barriak ikastea beti. Horrexegatik sartu gara lehenengoz areto batean. Zailagoa hitz barik? Desberdina esango nuke. Batetik zailagoa da testu barik antzeztea baina, bestetik, asko errazten da antzezpena, sinpleagoa



Babia lanaren irudi bat

eta unibertsalagoa delako. Askotan hitza tresna da, baina beste batzuetan ez du egiten gure alde: bizio asko daukagu hitz egitean eta, batez ere inprobisazioa lantzean, oso zaila da, testuak ez du laguntzen.

—Umorez eta samurtasunez lan egiten duzue beti?

—Azken batean, hori da clown antzerki-teknika eta horixe bera aldarrikatzen dugu: umorea eta, aldi berean, gizatasun

alde oso sakona, gurea ez baita umore erraza. Bai umore sinplea, istorio sinpleak hobeto heltzen direlako jendearengana, eta gauza gehiago kontatzen dutelako. Baina ez gara konformatzen egunerokoan ikusten dugun umoreagaz; beste umore mota bat gustuko dugu.

—Horixe da ikusleek topatuko dutena?

—Bai, datorrenak istorio hunkigarria ikusiko du baina, aldi berean, oso dibertigarria, bisuala eta ikusgarria. ○

Oroitzen zara?

Gaztetan narrazio lehiaketara testuak aurkez daitezke apirilaren 19ra arte



Info+: www.kulturleioa.com

Zelakoak ziren egun haiek, jolastea beste betebeharrak ez zenuenekoak? Edo lagunak jairik jai ibili zein ikastea beste ardurarik ez zenuenekoak? Izan orain dela hogeita orain bost urte, baina noizbait izan zinen gazte eta zure kontakizunak badu saririk Leioan. Izan ere, Gaztetan narrazio lehiaketa abiatu dute, aurten ere, Kultura eta Gazteria sailek: apirilaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

Lau kategoriatan parte har daitezke: A kategoria 18 urtera arte da, B kategoria 19tik 30era, C kategoria 31tik 55era eta D kategoria 56etik gora. Partaide bakoitzak gehienez narrazio bi aurkez dezake, euskaraz zein gaztelaniaz, eta gehienez sei

orri luze izango dira testuak, alde bakaurretik idatzita. Lanek saritu bakoak, jatorrizkoak eta argitaratu bakoak izan behar dute, ohi legez.

Bina sari emongo dute kategoria bakoitzean: lehenengo saria 250 eurokoa izango da eta bigarrena 125 eurokoa; garaikurra eta diploma ere emongo diete irabazleei. Gainera, saritutako lanak liburuxka batean argitaratuko dituzte. Sariak ekainaren 7an banatuko dituzte Kultur Leioako hitzaldietarako aretoan, arrastiko 19:30ean.

Testuak Kultur Leioan aurkeztu behar dira, bertaratuz edo posta bidez (azken horiek beranduenez apirilaren 19an zigiluz markatuta egon behar dute). ○

EL SHOW DE DODO MARTXOAREN 15EAN

El show de Dodo kabaret ikuskizunagaz gozatu ahalko dute leioaztarrek martxoaren 15ean, Kultur Leioan, 22:00etan. Orain dela urte bi abiatu zuten proiektua Luca Frasca eta Marina Sorin argentinar musikariak eta diskoa grabatu zuten hamar abestigaz. Antzinako kabareta gogorarazten duen mundu surrealista batera eroango dituzte ikusleak, tresna ugari jotzen duten musikariak batera, clown mundua eta zinema iradokitzen duen musika zertzeladakaz: “*ametsetako mundua, fantasiatzkoa eta umoretsua, musika kutsakorren bidez parte hartzeko gonbitea luzatzen duena*”.

Info+: www.elshowdedodo.com

ANTZERKIAK BADAUKA LEKURIK MARTXOAN

Antzerki obra bi eskainiko dute hil honetan Kultur Leioan. Lehenengoa, Azar Teatro taldearen *El juicio a Dayton*, martxoaren 22an taularatuko dute, 20:30ean; sarrerak 12 euro balio du. Bigarren lana, barriz, *Babia* Ganso&Cia taldeak antzetzuko du hilaren 24an, 18:00etan; sarrerak 5 euro balio du. Gozatu antzerkiagaz!

ANIMALIA GITXIAGO ABANDONATU ZUTEN IAZ

Aurreko urtean baino txakur eta katu gitxiago abandonatu zuten iaz Leioan: 2012an 80 txakur batu zituzten herriko kaleetan, aurreko urtean baino 9 gitxiago eta, katuak, 41 batu zituzten, aurreko urtean baino lau gitxiago. Gainera, la Casa del Perroren datuen arabera, gehiago izan ziren 2012an jabeek berreskuratutakoak ere, baita adopzioak ere: aterpetxe horretan hartu zituzten 125 animaliatik 35 jabe barriek adoptatu zituzten (19 txakur eta 14 katu), eta 65 euren jabeak itzuli ziren (63 txakur eta katu bi). Abandonatutako animaliak jasotzeko zerbitzuak abisuak jasotzen ditu egunero eta 24 orduz, eta deia jaso eta gero, gehienez 30 minututan heltzen dute aipatutako lekura.

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaleak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Txetxu Aurrekoetxea Urquijo > Erandioren historia-transmititzaile

“Garrantzitsua da hau kontatzea, jende askok ez duelako ezagutzen Erandioren historia”

Erandiok Bilbogaz izan dituen anexo eta desanexioen gaineko liburua kaleratu du Txetxu Aurrekoetxea Urquijok; azken hura, gainera, lehen pertsonan bizi izan zuen. Erandiori buruzko hirugarren liburua du, betiere bere historiagaz lotutakoak.

—Hirugarren lana duzu eta beti hitz egin duzu Erandiori buruz?

—Lehenengoan kontatu nuen Altzaga ikastolaren historia, bigarrenean idatzi nuen 1969ko gertakari odoltsuei buruz, gasaren aurkako mobilizazioak, eta hirugarrenean kontatu dut Bilbogaz gertatu anexo biak eta desanexioa.

—Erandio duela gitxi banatu zen Bilbotik, ezta?

—Hura bizi genuenontzat ez da hain denbora gitxi: 1983ko urtarilaren lehen lortu zuen Erandiok desanexioa. 1924an Enekuri eta Lutzana anexionatu zituzten Bilbogaz eta gainontzeko auzoak 1940-an. Baldintza bixietan gertatu ziren anexoak: diktadura bitan, Primo de Riverarena lehena eta Francoren bigarrena.

—Zelan gertatu zen desanexioa?

—70eko urteetan sortu zen Bekoako auzokideen elkartea eta, ika-mikak izan baziren ere, bertatik bultzatu genuen desanexioa. Herritarren desanexio-komisioa



Altzagako kioskoan, Jadoko liburu-dendan eta Obietako etxetresna-dendan lor daiteke liburua

sortu eta kanpainak egin genituen: pegatinak atera genituen, 1977ko San Agustín egunez Erandioko bandera ipini genuen Bilboko udaletxean e.a. Asko kostatu zitzaigun desanexioa lortzea. Ez zuten argi ikusten ez EAJ-k, ez Bilboko Udalak, eta Erandioko udal-batzordeak ez zuen ezer esaten; baina herritarrek gura zuten. Nire ustez konponbidea etorri zen Jose Miguel Barrutia EAJ-ko kidea-ren eskutik: EAJ-ko udal-politikaren arduradunarengana joan nintzen beragaz

eta, haren bitartez, Bilboko Osoko Bilkuran tratatu zen gaia, desanexioa eskatu zuen; ondoren tratatu zen Batzar Nagusietan eta, azkenean, Eusko Jaurlaritzaren bitartez egin zen desanexioa.

—Zergatik kontatu herriaren historia?

—Erandio banatuta dago sozialki, jende asko etorri da kanpotik eta gazteek ez dute ezagutzen gure historia: garrantzitsua da hau kontatzea. Liburu bat presentatzen nabil Alzaga ibarra bete eta kale nagusiak sortu ziren garaiari buruz. ○

Lokal kulturalen erabilera arautzeko ordenantza barria egin du Udalak eta hainbat udal-eraikini dagokio



Astrabuduko Josu Murueta kultur etxea

Lokal kulturalen erabilera arautzen duen ordenantza idatzi du Udalak, “*elkarrean kopurua gora doalako eta udaleko kultura-espazioak handitu direlako*”. Araudiak ordezkaturako du orain 15 urte indarrean dagoena, “*garai hartan zegoen kultura-ekipamendu bakarra Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxea zelako*”.

Besteak beste, udaletxeko erakusketa-aretoa, lehengo Posta Bulego, Alzagako lehengo merkatua, Josu Murueta kultur etxea eta Erandiogoikoako gizarte-etxe barriari dagokie ordenantza. Horren arabera, lokalok erabiltzea eskatzaile bakoitzaren beharrezan araberakoa izango

da, eta iraunkorra izatera ere hel liteke; baina Udalak lehentasuna izango du udal-jardueretarako erreserbatzeko. Udal Erregistroan izena emondako elkarteek ere lehentasuna izango dute espazio horiek erabiltzeko orduan, eta, azken aukerara gisa, Erandion erroldatuta ez dauden erakundeek alokatu ahalko dituzte.

Aipatu bezala, egoitza iraunkorra izatera hel liteke eta, kasu horretan, gizarte erantzukizuneko aseguruua kontratatu beharko du elkarte erabiltzaileak, 60.000 euroko estalduragaz. Gainera, “*mantenimendu egokia bermatu aldera*”, zenbait zigor aurreikusten ditu ordenantzak. ○

KORRIKA BIRRIAN DATOR ERANDIORA!

Badator Korrika, euskararen aldeko lasterketa handia, eta Erandio birritan bisitatuko du 18. edizioak: Asuara martxoaren 21ean, eguenean, iritsiko da 17:00etan, eta gainontzeko auzoetan biharamun eguerdian igaroko da, barikua 22an; Alzagara etorriko da Ezkerralde, ibaia arraunean zeharkatu ostean. Baina, bien bitartean, beroketa-lanak hasi dira eta hainbat ekitaldi antolatu du Korrika Batzordeak. Martxoaren 15ean Kantagunea egingo dute Alzagan eta 16an afora izango da Erandiogoikoako Danbaka tabernan. Gogoratzea Korrika Batzordea eguenero batzen dela Alzagako erakusketa gelan, 19:00etan.

IRAKURTZEAK BADAUKA SARIRIK LIBURUTEGIAN

Udalak antolatutako ikuskizunetarako sarrerak zozketatuko ditu Erandioko liburutegiak, hilero sarrera bi. Lehiaketa egingo dute horretarako eta asmoa da erabiltzaileen leialtasuna eta irakurtzeko grina saritzea, liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera emotea eta irakurzaletasuna bultzatzeko urteko egitasmoa osatzea. Parte hartzeko liburutegiko bazkide izan behar da eta azken hilabetean liburutegia erabili dela frogatu, dokumenturen baten maileguaren bitartez.

Info+: www.erandio.net

AITEI ZUZENDUTAKO AFEKTIBITATE-TAILERRA

Berdintasun arloak aitei zuzendutako doako ikastaroa antolatu du: Masajea eta afektibitate, 2-9 hilabeteko umeentzat. Apirileko bariku guztietan izango eta talde bi osatuko dute. Imanol Perez Alconek emongo du Alzagako Ludotekan (Desanexioa, 4). Izena emon behar da martxoaren 22a baino lehen Berdintasun Zerbitzuan, Gazte Informazio Bulegoan edo Astrabuduko Udal Bulegoan. Hitzaldiak ere eskainiko ditu Perezek.



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaikka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

SORBALDA ZAINTEKO HITZALDIA

Sorbaldia zaintzen ikasteko hitzaldia antolatu du Itzartu emakumeen elkarteak martxoaren 20an 18.30ean Itzartuko lokalean. Hitzaldia, aurrera ermaten ari diren osasuanaren zikloaren barruan antolatu du elkarteak. Sarrera doakoa izango da, eta aurretik ez da izena eman behar.

MARTXOAREN 24AN, SOPELAKO HERRI KROSA

Martxoaren 24an Sopolako XI. Heri Krosa ospatuko da. Ekimena Munarri Atletismo taldea Udalarekin batera antolatuko du. Lasterketa 10:30ean hasiko da txikienen lasterketarekin batera, horrela hamar minuturo beste kategoriak ateratzen joango dira. Azkena, helduena, 11:30ean aterako da. Azken honen ibilbidea murriztu da, eta aurtengo ibilbidea 7700 metro izango ditu. Hortaz, gure eskualdetik KORRIKA 18 igaro ostean, hortxe beste aukera, kiroliek eta azkarrena egiteko; animatu, eta parte hartu korrika eginez!

ZEELANDA BARRIKO PROIEKZIOA ETA MENDI IRTEERAK

Munarri Mendi Taldeak antolatuta, martxoaren 15ean Kurtzio Kultur Etxean Zeelanda Barriko paisaien proiektzioa izango da. Bertan, Luis Alejosen eskutik urruneko paisaiak ikusteko aukera egongo da. Horrez gain, martxoaren 17an, mendira joateko aukera eskainiko dute; egun horretako ibilbidea, Aezkoako hiriberritik abiatu, Nafarroatik, eta hortik Berrendiren tontorrera igotzeko plana izango da; hortik Goñiburura helduko dira. Bertatik Irati ohianeko sekulako paisaia ikus daiteke. Hortaz, mendia gustuko izanez gero, hortxe sekulako aukera mendiaz eta urruneko paisaiez gozatzeko, ez galdu aukera, eta anima zaitzez!

Info+: www.munarri.com

Sopela izateko bidean Udalerriaren izen ofiziala aldatzeko prozedura hasi du Sopolako Udalak



Udal-bilkuran izen aldaketa onartuta, Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu beharko dute

Daborduko izen ofiziala *Sopelana* izateko *Sopela* izatera aldatuko da, horretarako lehenengo urratsak abiatu ditu Sopolako Udalak. 1979an Euskaltzaindiak, udalerrirako Sopela izena gomendatu zuen; orduetik, asko izan dira behin eta berriz, Euskaltzaindiak izen horren alde egindako ebazpenak; 1986an Sopela izenaren erabilera Euskal Herriko Euskal Autonomia Erkidegoko herrien izendegian berretsi zuten; 1987an, barriz, Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko presidenteorde zenak Sopela izena hobetsi zuen. Urteak joan dira, baina,

udal bilkuran proposizioa eztabaidatzeko, bozkatu eta izena aldatzeko prozedura ofiziala abiatzeko. Horrela, joan den otsailaren 28ko udal-bilkuran, Bilduren eta EAJren aldeko bozkek, eta PSE-EE eta Alderdi Popularraren abstentzioek udalerriaren izena aldatzeko prozesuari ateak ireki zizkioten. Oraindik, aldaketa ofiziala lortzeko prozesuak luze joko du; izan ere, udal-bilkuran onartu ostean Bizkaiko Batzar Nagusietan onartu behar baitute Sopela izen ofiziala. Antza denez, hurrengo hilabetetara luzatuko da aldaketa prozesua. ○

Hondakinak kudeatzeko batzordea > parte hartuz

“Eztabaidaren hiru oinarriak; Murriztea, Berrerabiltzea eta Birziklatzea”



Herriko 12 elkartetan parte hartu zuen batzordearen aurkezpenaren

Aurreko otsailaren 21ean, Hondakinak ahalik eta ondoen Kudeatzeko Aholku Batzordea aurkeztu zen. Eskualdeko beste herrietan horrelakorik ez, eta UK-gehigo jakin gura izan du, horretarako batzordean dagoen Udaleko ordezkariagaz egon gara, Saioa Villanuevagaz, egun Sopolako alkate denagaz.

—**Zein helburu dauka batzordeak?**

—Batzordearen helburu nagusia zera da: hondakinak ahalik eta eraginkorren kudeatzea, emaitzarik onena eskuratzea. Hori guztia lortzeko, hiru R-ren printzipoetan (ingelesez) oinarrituko gara: Murriztea, Berrerabiltzea eta Birziklatzea. Horrela, lehenengo batzarra martxoaren 11-14 bitartean izango da, eta batzar horretan formazio-saioa eskainiko da; terminologia aldetik, besteak beste, nozio batzuk jasotzeko. Ondoren, hiru R-ren printzipioetan oinarritu, eta atalka landuko ditugu; lehenengo bi batzarretan, gutxienez, murriztearen gainean berba egingo da; lehenengo batzarrean

proposamenak egingo dira; eta bigarren, oster, horiek bozkatu. Ondoren, bozkatutako proposamen horiek plenora pasa beharko dute onar daitezela. Hortaz, batzordearen erabakiak ez dira lotesleak; baina gure ardura da kontuan hartzea.

—**Nortzuek parte hartuko dute?**

—Batzorde hau partaide mota bik osatuta dago; alde batetik, elkarteak eta beste aldetik, alderdi politikoak. Elkarteetan kasuan, interes aniztasuna bermatzeko herriko elkarteek parte hartuko dute pro-

«Lehenengo batzarra martxoaren 11-14an izango da»

zesuan. Besteak beste, Lagun Artean, Peña Txuri, Merkatarien Elkartea,... Partaide-talde bakoitzaren bozkek %50 balioko dute.

—**Zu zeu, udaleko ordezkaria bertan...**

—Ingurune Zientziak ikasi ditut, orduan sensibilitate berezia dut gaiarekiko, bereziki inplikatur nago... ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

VON KARAJA ZUZENDARIARI OMENALDI KONTZERTUA

Ostiral musikaletan Von Karajari gorazarrea eskainiko diote; horretarako, Claudio Abbado zuzenduta, Berlingo Orkestra Filarmonikoak Mozarten *Requiem* obra interpretatuko du Berangon. Hala, musika emaldi horren bitartez, Von Karajaren heriotzaren 10. urteurrena gogoratu eta omenaldia egin gura diote. Entzunaldia Berangoeta kultur etxean izango da martxoaren 15ean, iluntzeko 19:00etan. Bestalde, martxoaren 22an arratsaldeko 19:00etan "Frederic Chopin" kontzertua eskainiko du Impromptu taldeak. Frederic Chopinen obraren gaineko zuzeneko emanaldi didaktikoa izango da. Sarrerak euro batean salgai izango dira.

ZINEMA-ESKAINITZA MARTXO OSOAN BERANGO ANTZOKIAN

Hainbat dira Berangoko Antzokian martxoan izango diren zinema emanaldiak, besteak beste: martxoaren 24an familia osoari begirako *La Montaña Mágica* fantasiako filma egongo da ikusgai; eta horrez gainera, martxoaren 30ean eta 31n, hurrenez hurren *Lo imposible*, eta *Kika superbruja. El viaje a Mandolan* filmak eskainiko dituzte; lehenengoa arrastiko 19:00etan hasiko da, eta bigarrena arrastiko 18:00etan. Emanaldi danak doan dira. Horrenbestez, hortxe Aste Santuan zinemagaz gozatzeko aukera ezin hobe, bai nagusi bai gaztetxoentzat!

zure publizitatea hemen!

publiuk@aldizkaria.biz

Tf. 944 911 337

Martxoaren 8tik harago Hilabete osorako egitarau zabala antolatu dute Emakumearen Egunaren harira



Hitzaldiak, antzerkiak e.a. antolatu dituzte; 90 semanas y media lana eman zuten martxoaren 8an

Emakumearen jardunaldiak ez dira Martxoaren 8ra bakarrik mugatuko; izan ere, hil osoan hamaika izango dira Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dituzte ekitaldiak, besteak beste: martxoaren 16an 19:00etan Berango Antzokian, "Berangoko Emakumeen Ikuskizun Aparta" antolatu dute; horretan, Berangoko Emakumearen elkarteak, Nagusien Etxeko emakumeek, Fernando Ansoleagaren poesia taldeak, Elizako emakume abesbatzak eta Kultur Etxeko Dantza Modernoko taldeak parte hartuko dute.

Hilaren 21ean, Berangoeta kultur etxean mahai-ingurua egongo da; bertan landuko den gaia hau da: Emakumeen estereotipoak zinematan. Hurrengo egunean Impromptu taldearen kontzertua izango da, 19:00etan, Berango Antzokian. Hilaren 23an, 19:00etan, *La enferma imaginaria y el batallón de criadas* antzerkia ikusgai egongo da Berango Antzokian; obra hori Hezgaitez taldeak, Getxoko Antzerki Eskolako emakumeen taldeak, antzetzuko du. Ekitaldi gehienak doakoak dira. Hala, baduzue non gozatu eta zer aldarrikatu! o

M. Artetxe eta H. Oleaga > Txakurkrossaren antolatzaileak

"Jabeak txakurragaz goma batez lotuta korrikan joan behar du"



Martxoaren 13ra arte dago izena emateko epea, halere egunean bertan ere egin ahalko da.

Martxoaren 17an egingo da lehenengoz Gorlizen, baita eskualdean ere, Txakurkross txapelketa. Gorlizko Turismo Bulegoak martxan jarritako ekimena da, ohiko ez diren kirolak bultzatzeko asmoz. Turismo Bulegoko Hartz Oleagak eta Maialen Artetxek emon digute ekimenaren barri.

—Zertan datza txakurkrossa?

—Hemen ez da oso kirol ospetsua. Antza denez, kirol honen jatorria txakurkrossa tiratutako elur gaineko lera-lasterketetan dago. Kasu honetan, aldiz, pixka bat desberdina da kontua; jabea txakurrarekin goma baten bitartez lotuta joaten da korrika egiten. Normalean, neguan egiten da eta Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioak antolatzen du. Orain dela urte batzuk European indar pixka bat hartzen hasi zen; Bizkaira baina, heldu barri da, eta oraindik ez du izan arakasta handirik. Gipuzkoan, ordea,

horrelako txapelketa gehiago antolatu dituzte.

—Zeintzuk dira parte hartzeko bete beharreko baldintzak?

—Edozein txakur motagaz parte har dezakezu, baldintza bakarrak: txakurrak

«Txakurrak urtebete baino gehiago izan behar du, eta txerto guztiak»

urte bat baino gehiago izatea, eta beharrezko txerto guztiak emanda izatea. Jabeen arabera hainbat kategoria izango dira: gazteak, senior, master 40, master 50 eta federatugabeak. Guztira, 4-6 km inguru egin beharko dituzte.

—Zer dela eta txakurkrossa?

—Beti saiatzen gara indar handia ez duten kirolak sustatzen; iaz, Nordic walking kirola egiteko ekimena sustatu genuen. Nahiz eta zabaldua ez egon, jendea animatzea espero dugu! o

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA



Harrizko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779



AIXERROTA BHI

TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK · NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

KORRIKAREN EKIMENAK HILAREN 16AN ETA 22AN

Korrika heldu baino egun batzuk lehenago eskaintza zabala eta erakargarria egongo da Gorlizen. Izan ere, Korrika 18 dela eta, Korrika Kulturalako ekimenen barruan, martxoaren 16an gorliztarrek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute: eguerditik hasita, umeentzako tailerrak izango dira, ondoren, 19:00etan kale-antzerkia izango da, eta azkenik, iluntzeko 20:00etan txokolate-jana prestatuko dute. Gainera, Korrika pasatuko den egunean bertan, Korrika afaria izango da Jubilatuen etxean. Afarirako tiketak salgai egongo dira AEK-ko euskategietan.

INDABADA TXAPELKETA GORLIZEN

Aurten ere, Goskoak elkarteak indabada txapelketa antolatu du. Hitzordua martxoaren 23an ipini dute Ibarretan, eta jaia ospatzeko koadrilaren parte hartzea ezinbestekoa izango da. Txapelketa 12:00etan abaituko da; hortaz, parte hartzaileek ordu horretan euren indabak egiteari ekingo diote.

IKASTARO BEGETARIANO, PLENTZIAN

Apiril eta maiatzeko martitzenetan (17:30-20:00) eskainiko da bazkari begano-begetarianoak egiten ikasteko ikastaroa. Plentzian eta Gorlizen erroldatuek 110 euro ordaindu beharko dute. Izen-emotea: Goñi Portalean, hilaren 13a baino lehenago.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Mankomunitatea

‘Hemen euskaraz atseginez’ kanpainak aurrera darrai herriz herri



2010ean abiatu zuten kanpaina lehenengoz

Urte pare bat igaro dira Mankomunitateak ‘Hemen euskaraz atseginez’ kanpaina abiatu zuenetik. Kanpainaren helburua hasi zeneko bera da: Lemoiz, Gorliz, Plentzia, Urduliz eta Sopelako merkataritzan eta ostalaritzan euskaren erabilera sustatzea eta normalizatzea. Izan ere, sarri, dendara sartu eta gaztelaniaz esaten ei dute herritarrek lehenengo berba, dendariak ulertuko ez dielakoan. Manko-munitateko euskarte-technikari Iratxe Bilbaok adierazi legez, “Egitasmoa hasieratik oso polita izan da; kanpaina bera AITXU! Sopelako Euskara Taldearen kezka batetik sortu zen; nahiz eta, ondoren, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak aurrera eramanean.” Mankomunitatearen esanetan, herrietako taberna eta denda guztietara joatea lan nekeza izan den arren, emaitza ona izan dela kontuan hartuta, merezi izan duela aitortu dute. Euskara teknikariak azaldu legez, “kanpaina egin eta zabaldu izanak

euskaldunei aukera eman die hainbat tabernatan eta dendatan euskaraz eskatu ahal izateko. Gainera, dendariak kanpainarekiko erakutsitako atxikimendua eskertzekoa da”. Aurten, beste urteetan bezala, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskaraz ez dakiten, baina

**«Guztira, bi urtetik hona
80 dendarik baino
gehiagok parte hartu du
Dendaketan ikastaroetan»**

ikasteko gogoia daukaten tabenari zein ostalariei euskara ikastaroak eskaini dizkie. Oraingoz, Urdulizen izan ezik, Sopelan, Plentzian eta Gorlizen ikastaroek martxan jarraitzen dute. Aurrerantzean herri guztietan egotea espero dute antolatzaileek.

Horrez gainera, etorkizunean, “Euskara Zerbitzuak blog-a sortzeko erronka dauka, ostalariek euren iritzia, eta kezka adieraz ditzaten” o

Mar. 11 - Mar. 25

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Mugarik Gabeko Medikuak elkartearen argazkiak.** Martxoaren 25a arte. Algortako kultur etxean.

ERANDIO

► **Miradas de mujer.** Martxoaren 19tik 26ra, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Publikoari gorroto.** Martxoak 12, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

► **Pisukideak.** Martxoak 19, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean.

► **Rompe Ralph.** Martxoak 23, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean.

GORLIZ

► **Maitte Franco ipuin-kontalaria.** Martxoak 16, 18:30ean. Sertutxenan.

LEIOA

► **El juicio de Dayton.** Martxoak 22, 20:30ean. Kultur Leioan. 12 euro.

► **Babia.** Martxoak 24, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

BERANGO

► **La enfermera imaginaria y el batallón de criadas.** Martxoak 23, 19:00etan. Berango Antzokian.

SOPELA

► **Calla y come.** Martxoak 23, 20:00etan. Kurtzion. 6 euro.

GETXO

► **Teleipuin.** Martxoak 24, 18:00etan. Areetako musika eskolan.



Filmaren irudi bat

► Zinema

Arraza-bereizkeriaren aurkako egunez

Getxoko Cinema Paradiso ekimenak lekua egingo dio Arraza-bereizkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunari, eta bere filmen artean eskainiko du *Catalunya über alles!* Emanaldiaz martxoaren 22an izango da, barikuan, Areetako Andres Isasi musika eskolan. Ramon Termensek zuzendu du katalanezko filma eta 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago; aktoreen artean daude Joel Joan, Jordi Dauder, Babou Cham, Gonzalo Cunill, Vicky Peña, Angels Bassas, Boris Ruiz, Belen Fabra, Tony Corvillo, Lluís Moner eta Jean Claude Riquembourg. Proiektzioa 21:00etan hasiko da eta ostean solasaldia egingo dute, ohi legez Cinema Paradison; sartzera 2,90 euro ordaindu behar da.

• **Non:** Areetako musika eskolan • **Noiz:** Martxoak 22, 21:00etan

ZINEMA

SOPELA

► **La fuente de las mujeres.** Martxoak 14, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.

► **Brave.** Martxoak 17, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

GETXO

► **Moonrise kingdom.** Martxoak 15, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,10 euro.

ERANDIO

► **El alucinante mundo de Norman + The master.** Martxoak 16, 17:00etan eta 20:00etan.

Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

► **Haritzaren bihotza.** Martxoak 17, 17:00etan. Astrabuduan.

BERANGO

► **Cher Ami.** Martxoak 17, 18:00etan. Berango Antzokian.

► **La montaña mágica.** Martxoak 24, 18:00etan. Berango Antzokian.

MUSIKA

LEIOA

► **El Show de Dodo.** Martxoak 15, 22:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

GETXO

► **Blanca Altable eta Chuchi.** Martxoak 16, 22:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben. Doan.

► **Bideoklip-aurkezpena: Puta crisis (Mandaluniz).** Martxoak 22, 20:00etan. Algortako kultur etxean.

ERANDIO

► **Aste Santuko entzunaldiak.** Martxoak 21 eta 22, 19:30ean. Astrabuduko kultur etxean.

BERANGO

► **Impromptu: Frederic Chopin.** Martxoak 22, 19:00etan. Berango Antzokian. 1 euro.

BESTEAK

URIBE KOSTA

► **Lurralde Antolaketa Jardunaldiak.** Martxoaren 14an, Sopelako kultur etxean, 19:00etan; 15ean, Algortako kultur etxean, 19:00etan; eta 16an, Urdulizko kultur etxean, 10:30ean.

PLENTZIA

► **Triki-poteoa.** Martxoak 16, 19:00etan. Elizako plazan.

GORLIZ

► **Txakurkross.** Martxoak 17, 10:00etan. Hondartzako parkingean.

► **Indaba-txapelketa.** Martxoak 23, 12:00etan. Ibarretan.

GETXO

► **Irakurzaleen txokoa: Ramon Saizarbitoria.** Martxoak 21, 19:30ean. Aldai patronatuan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Korrika aurretik...

Joan den martxoaren 1ean izan zen Uribe Kostako Korrika-aurkezpena Erandioko azoka zaharrean. Bertan txikiek eta nagusiek bat egin zuten Korrikaren aurtengo mezuagaz; hala, euskara alkarri emoteko deia hamaika modutan zabaldu zuten: dantzan, bertsoan, abestuz, umoretsu... Giroa berotu eta luzaketak egiten hasi ziren, hilaren 22rako prestatzen; agerian utziz, gero eta gehiagok emon gura diogula euskara alkarri!

Argazkiak: **Hodei Torres**





Trenbide zurutuaren

gainetik, bere bidean...

Siberia aldeko irudia emoten du... Gurean ez da ohikoa, eta are gixiago Uribe Kostan... Baina, orain dela aste batzuk ere gure inguruak zurituta ikusi ditugu... Ostera, argi dago, oraingoan baino elur gehiago egin zuela alboko argazkia atera zen sasoiari. Metroa baino, trenaren garai hartakoa, eta dirudienez Astrabudua eta Leioa bitarteko guneren batetik pasatzean betikotu zuela argazkilariak; burdinbide izoztuen gainetik aurrera zihoala... Orduko bagoiek ere ez zuten gaurkoen berogailu-sistema izango; baina, ziurrenik, barruan epeltasunik ez zen faltako...

[berbetan]

Leioan bizi da orain 30 urte Itziar Idiazabal (Gaintza, Gipuzkoa, 1949) Euskal Filologiako Katedraduna (EHU) da, UNESCO Etxeak hizkuntza eskubide eta betebeharrak zabaltzeko sortutako Amarauna taldeko kide, EHUren Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrako koordinatzaile 2007tik, Munduko Hizkuntzen Txostenaren egileetako bat eta ikerlan andana egin ditu, besteak beste, haur elebidunen hizkuntza-jabekuntzaren esparruan. Hizkuntza gutxituen arriskuez, Espainiako Wert ministroaren Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoaz (LOMCE, gaztelaniaz), euskal hezkuntza sistemaz, D ereduaren eraginkortasunaz eta abarrez berba egin dugu beragaz.

Itziar Idiazabal

Hizkuntz aniztasunaren jagoletzan

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Hodei Torres**

—Zein da Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren egitekoa?

—Katedraren eginkizuna edo helburua da batez ere hizkuntza-aniztasunari buruz sentiberatasuna eta ezagutza garatzea. Nolabait gure hizkuntza propioaz gain, munduan, eta gure artean ere, beste hizkuntza asko hitz egiten direla azaltzea, horiek denek gurearen balio berbera dutela, nahiz eta guk ez hitz egin; eta aniztasun hori arriskuan dagoenez, horren alde sentiberatasuna beharrezkoa dela erakustea. Horren aldeko ekimenak bultzatzen ditugu gizarteetan eta, bereziki, unibertsitate eremuan, gurean eta kanpoan ere bai. Gero, horretarako beharrezkoak diren ikerketak, harremanak eta bestelako ekimenak ere bultzatzen ditugu. Bestalde, Katedrak, hainbat komunitate edo hizkuntza erkidego txikiren eskaerak jasotzen ditu, esanez: *“gure hizkuntzaren alde zerbait egiten laguntzea nahi genuke...”*; batzuetan, eskolatzeko beharrezkoa den irakasleen formazioa izaten da, edo hartarako behar den eskola-materiala e.a., bestetan, hizkuntza bera askotan normalizatu gabe egonik, idazteko estandarrik

gabe, eta egoera larrietan dauden hizkuntza-erkidegoak izaten direnez, bada pixka bat Euskal Herrian gertatu den esperientziak jakitun direnez, esaten digute: *“zuek egin duzuen bezala, guk ere egin nahi dugu, lagun egiguzue”*, halako eskaerak bereziki Amerikako hainbat lekutatik jasotzen ditugu. Euskal Herriak badu munduan bere hizkuntzaren alde lan ona egin duenaren nolabaiteko oihartzuna, eta Euskal Herriatik lan egiten dugunez, UNESCOren bitartez ere gure izena pixka bat gehiago ezagutzen da; ha-

—Hizkuntza gutxituak erabilera murrizten duten hainbat baldintza artean bizi dira; erabilera murrizten da, esaterako: nolabait hizkuntza horiek erabiltzen dituzten gizarteetan beste hizkuntza nagusiago batek erabilera horren lekua hartzen duelako, edo komunitate horrek euren hizkuntza erabiltzeko lekurik, aukerarik, beharizanik ikusten ez duelako... Batzuetan ez dago ezintasunik, besterik gabe, bitarteko komunikabideek eta gainerakoek ez dute dagoenik ere ikusten uzten; ez-ikuste hori ez erabiltzearen arrisku

“Hizkuntza normalizatua ez dagoen hainbat egoera dagoenez, horiek arrisku bihurtzen dira erabiltzen ez delako”

la etortzen zaizkigu guri eskaerak. Hori, alde batetik, harro egotekoa da, bestetik, berriz, lan oso interesgarria eta polita izan arren, egin dezakeguna ez da asko; zenbait gauzatxo egin egiten ditugu.

—Arriskuak aipatuta, luze eta zabal berba egin genezake... Batzuk aipatzearen, zerrenda luzatu duten azkenak?

handietako bat da. Hala, hizkuntza normalizatua ez dagoen hainbat egoera dagoenez, egoera horiek denak arrisku bihurtzen dira, erabiltzen ez delako eta erabiltzen ez bada hizkuntza horren ezagutza eta presentzia gutxitzen du; prestigioa, eta beharra ere, gutxitu egiten dira. Gero, jakina, gurean bezala beste hizkuntza asko-



tan, eta gurea baino egoera okerragoan daudenetan are nabarmenagoa da, badaude herri-erakundeak, arduradun politikoak eta, hizkuntza horren erabilera eragozten dutenak: batzuetan, zuzenean galarazi, eta esan daiteke hori gaur egun gaizki ikusia dagoelako ez dela zuzen eta argi antzematen, baina hori ere badago munduan, leku askotan ez dago eskubiderik hizkuntza batzuk erabiltzeko; bestetan, zeharka, legebidez-eta, nolabait hizkuntza gutxituen presentzia ezkutarazi, txikitu, edo desagertaraztera eramaten duten erabaki asko hartzen dituzte, adib.: ofizialtasuna ukatuz, komunikabideetan lekurik ez emanez, itzulpenerako dirurik ez e.a. Beharbada, ezintasun edo okerrera bideak baino, agian interesgarriago da irtenbidea non dagoen, zer egin daitekeen ikustea, alde positiboetatik... Ezkorretara begiratuz gero... Ez da oso eraginkorra gertatzen!

—**Hizkuntza gutxituetako esparru estrategikoetako bat hezkuntza dela ezin inork ukatu. Egiteko asko dago gurean. Eta, orain, aurrez aurre Wert Espainiako ministroaren Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoa (LOMCE, gaztelaniaz). UNESCOk partaideei hizkuntza aniztasunaren alde, hizkuntza gutxituen defentsan eta irakaskuntza eleantzen aldeko gomendio zehatzak egiten dizkie urtero; horiei entzungor Espainiak eta Frantziak.**

—Hala da, bietan dago zentzu bereko joera; baina, batzuk oraindik indartsuagoak dira besteak baino, esan nahi dut: uste dut Frantzian oraindik okerragoak direla, legez askoz ere baldintza okerragoetan daude, ez dute Europako Kontseiluaren hizkuntzen aldeko karta ere onartu; Espainian onartu da, gero betetzen den ala ez beste kontu bat da. Baina, Frantzian, oraindik, oinarritzak den eta Europarako gomendatzen den baldintza hori ere ez dute onartzen, eta bestalde, hezkuntza-politika eta hizkuntza-politika oso-oso elebakarra, zentralizatua, eta hizkuntza gutxituen kontrakoa da. Espainiako estatuan joera

hori oso indartsua da, zenbait gauza lortu badira ere; badakigu, legez onartuta dauden gauza asko egon arren, beste joerak indarra hartzen duenean, orain bezala, politika joeraren arabera, halakoak gertatzen direla. Orain onartuko den, onartzekotan dagoen lege hori ikustea besterik ez dago. —**Legeari “gutziz atzerakoia” deritzozu.** —Oro har, ez bakarrik hizkuntza kontue-

“Hizkuntza gutxituen presentzia txikitu, edo desagertaraztera eramaten duten erabaki asko hartzen dituzte...”

tan, hezkuntzaren oinarritzako baldintzetan ere oso atzerakoia da: derrigorrezko irakaskuntza gutxitu edo txikitu nahi dute, hau da, eskolan egon beharra 16 urtetik 15 urtera jaitsi; eskolan egiten diren aukerak lehenago egin, nolabait ikasle onak eta txarrak lotu nahi dira formazio tipo bat ala bestearekin, hori guztiz ezkorra den erabakia da. Zentralizazioaren alde, hobe esan, indartzeko, lehenago ere zentralizatuta dugulako, ez dugu pentsatu behar orain artekoa erabat deszentralizatua dagoenik, ezta gutxiagorik ere! Dagoena oraindik eta gehiago zentralizatzeko asmoa dute, hau da, autonomia erkidegoetan gure gaiak aukeratzeko daukagun aukera gutxitu egin nahi dute. Tarte horretan dago hizkuntzari buruzko politika. Batere lotsarik gabe agertzen da hizkuntza batzuk beste

“Adib: ofizialtasuna ukatuz, komunikabideetan lekurik eman ez, itzulpenerako dirurik ez e.a.”

batzuk baino garrantzitsuagoak direla, nolabait eskolan hizkuntza bat dela bereziki, gaztelania, garrantzitsua, enborrezkoa edo derrigorrezko nagusia dena, eta besteak bigarren mailako bezala jartzen dira. Orduan, horrek konnotazio oso ezkorra dauka, eta gainera, esango nuke, zientifikoki ezjakintasuna adieraziko lukeena, ez

bageeneki ezjakintasuna baino ez-nahitasuna dela, edo politikoki dagoen ikuspuntua dela hori eginaraztera eramaten duena. Baina, hori egitera ausartzeak esan nahi du oraindik zientifikoki ondo demostratuta dauden gauzek ere ez dutela balio. Alde horretatik, badakigu hizkuntza guztiak balio berbera dutela, eta gainera hizkuntza batzuk beste batzuk baino eskolaren behar

handiagoa dutela. Hemen, berriz, ez da hori kontuan hartzen. Hemen hizkuntza bat da beste guztien gainetik onartu eta indartzeko derrigortasuna ezartzen duena; hori da, hain zuzen, beharren eta berezko izaeraren kontra datorren erabakia. Badakigulako, gure gizarte bezala Espainiako beste gizarte guztietan, gaztelania daukan presentzia ez dagoela inolako zalantzetan, denek ikasten dugulako gaztelania ondo, eta elebidun izatea ez dela eragozpena gaztelania ondo ikasteko, alderantziz baizik. —**Hori frogatzen duten hamaika ikerketa daude, hainbat hizkuntza alderatuz, hainbat lekutan eginak. PISA ebaluazio-datuek ere emoten dute dute argirik...**

—Hala da, ez da hemengo kontua bakarrik, beste lekuetan ere hala ikusten da: hizkuntza bat nagusia denean, hizkuntza

hori ikasteko erraztasuna handia da, horrek ez du esan nahi eskolak ezer egin behar ez duenik, hor ere gauzak egin behar direlako. Baina eskolak denbora mugatua duenez, denbora mugatu horretan ahalegindu behar du beharrak ondo identifikatzen, horien alde egiteko. Gaztelania badiu behar batzuk eskolaren esku lotzen

direnak, bereziki hizkuntza idatziaren eta hizkuntza formalaren eremukoak, hor zer egin badago; baina, beharbada hori egiteko ez da behar hainbeste denbora, edo beste modu batera egin daiteke. Eta eskolako denbora aprobeztatu beste hizkuntza batzuk ikasteko, nagusiki bertakoa behintzat, eta hirugarren bat ere bai. Eskolan gauzak ondo eginez gero, posible da; eta ez

“(LOMCE) Oro har, ez bakarrik hizkuntza kontuetan, hezkuntzaren oinarritzako baldintzetan ere oso atzerakoia da”

da aukera urruna, baizik eta ondo demostratuta dagoen zerbait. Hor dugu gure apustua eta erronka. Lege hau, espero dut ez izatea atzera bueltarik ez daukana, baina... Zaila da, zaila... Hainbeste eragozpen... Ez-jakintasuna adierazten duen lege bat bultzatu nahi dutenean, ezta?

—**Zelan aurre egin horri?**

—(Hasperen egin ostean) Ikusten dudana da gure bidea indartzea dela aukerarik onena, esan nahi dut: hemengo eskolak

bertako biak eta beste bat behintzat ondo irakasteko apustua aspaldi egin duela, eta emaitza onak lortzen ari da. Ez da erraza, eta aurrera egiteko laguntza behar du, jakina; baina, pentsatzen dut bertako hezkuntza arduradunek hori argi dutela eta horren alde egingo dutela. Horrekin batera, jakina, gizarteak horren jakitun egon behar du, irakasleak horren ardura, ber-

mea eta nolabaiteko prestigioa ere agerian izan behar du; gauza hauek ez direlako agindu hutsez betetzen diren kontuak. Orduan, maila askotan eginkizun garrantzitsu horren izaera, abantailak, ezaugarriak, informazioa ematea oso inportantea dela iruditzen zait. Nik, nire eremutik, egin dezakedana begiratzen dut. Beste neurri politiko edo ekonomiko batzuk hartu ahal izango dituzte. Bakoitzak eskulara duena ikusten du, nik hori: eskola-ere-

muan, askotan gure gizarteak ez du eza gutzen bertan egiten ari dena. Beste batzuetan bai, bestela ez zen gertatuko B eta D ereduaren aldeko joera hori, ez balego garbi gizartearentzat eskola horiek onak direla, nahiz eta etxeko hizkuntza ez izan euskara; horrek adierazten du gizarte honetan badagoela nolabaiteko ezagutza. Baina, ez dut uste inoiz nahikoa denik, eta oraindik ere eremu horretan gehiago egin litekeela uste dut, hau da: azaldu nola 40 urteetan hizkuntza bakarra jakitetik hiru hizkuntza jakitera pasa den gazte jende asko, gure ikasle asko eta asko hirueledunak dira; hori aurrerapen oso handia da! Eta badakite! Halere, nahiz eta oso ondo prestatutako gazteak daukagun, gero lanik ez! Hori ere egia da... Baina, gurearen harrotasun apur bat ere batzuetan beharrezkoa izaten da, bestela, ezertarako balio ez balu bezala da, eta hori ez da egia! Hor aurrerapen handia dago, unibertsitatean oso ondo ikusten da hori: jendeak geroz eta hizkuntza-formazio hobea dakar, nahiz eta irakasle batzuk kexu diren beti; ni baikorra naiz. ○

Hiru eredu sistema horretan, hirueledunak izatera...

—**Jakin bai, baina erabili? Eta bologolo dabilen “D ereduak ez du balio euskalduntzeko” horri zer deritzozu?** —Azken hori pixka bat masokista izateko joera bezala ikusiko nuke. Eskolak bakarrik ez du dena egiten, baina gure eskolak egin duena eta egiteko erakutsi duen ahalmena izugarria da. Euskara bezalako hizkuntza gutxitu batek, eskolatze esperientzia hain berria duenak, non irakasle askok euskara bera ikasi egin behar izan duten... Baldintza hain zailetan egin duen aurrerapena ez du egin munduan beste... den-denak ez ditut ezagutzen, pixka bat bai, eta ez dut uste leku asko daudenik, zoritxarrez, horrelako gauzak egin dituenik! Halere, badakigu seme-alabak D eredura bidali eta kito! ez dela nahikoa. Gizarteak eskakizun hori elikatu behar du; gizartearen hizkuntza, edo euskara, erabiltzeko eremu gero eta

aberatsagoak eta erakargarriagoak sortzen ditugun heinean, nahitasun edo ezagutza hori praktikatzeko aukerak izango ditugu. Badakit hau dena teoria dela; beste hizkuntzen eragina, presentzia-eta hortxe dagoela, eta borroka horretan egotea ez da erraza... Baina, ez da eskolak, edo D ereduak, nahikoa egin ez duelako bakarrik. Halere, benetan uste dut eskolan oraindik gehiago egin daitekeela, baina hori egiteko ere ikertu egin behar da; osasunean bezala, pentsa zenbat aurreratu den minbizia bezalako gaixotasunen ezagutzan eta gaitza menderatzen... Eta ez dut uste inork onartuko duenik “nahikoa badakigula, eta egin dugunarekin nahiko!”. Hala, hezkuntzan ere asko egin dugu, baina horrek ez du esan nahi nahikoa denik. Beste arlo batzuetan bezala, aurrera egin behar dugu; geroz eta zailagoa da, noski, oina-

rrizko gauzak erraz ikasten direlako, baina gero fin jokatu beharra dago, eta horretarako ikerketa asko egin behar dira. Hezkuntzan baldintzak hobetu eta ikerketa areagotu egin behar da; orduan eskaini ahal izango dugu eredu are interesgarriago bat, guretzat eta beste guztientzat ere bai. Erronkak behar dira aurrera egiteko. Batzuetan galdetzen didate “eredu bakarra hobeto, hiruko eredu baino?”; nik ez dut sinesten legea aldatu behar denik gauzak hobetzeko, uste dut legeak aukera nahiko ematen digula... Egin behar dena da lan gehiago, ikerketa gehiago, daukaguna hobeto ezagutu eta aztertu, eta gizarte pixka bat gehiago kontzientziatu: eskuartearen daukan hezkuntza-sistema ez dadin izan “hor daude”, baizik eta gurasoak eta gizarteak gainean egon behar duten zerbait dela.





Telurismoa

Lurraren energiak eragiten digu: pertsonoi, animaliei, baita gauza edo objektuei ere. Egoera horiexek irudikatu gura du Roberto Marcos Fernandez bilbotarrak. Afizioz egiten ditu argazkiak eta gustuko du zuria eta beltza erabiltzea (jatorrizko irudi gehienak ere zuri-beltzean daude). Marcosen lana gustuko izanez gero, sarean topatuko duzu gehiago: [flickr.com/photos/eldoctorrober](https://www.flickr.com/photos/eldoctorrober).

Argazkiak: **Roberto Marcos**







Industria ondareari begira > eragina eta ondorioak gurean

Industria, atzo eta gaurko jarduera ekonomikoaren burdinezko lekukoa

Euskadiko Industria Ondarea Elkarteak liburu bi argitaratu barri ditu gure herriko historiaren zati inportatea biltzeko. Horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko 600 elementu industrial baino gehiago jaso eta aztertu dituzte; Uribe Kostakoak 20 inguru dira, hemen ere industriaren aztarnak badira-eta.

Eskualdean, industrializazioaren unerik gorena zehaztea ez da erraza; oro har, bigarren sektoreak ez du inoiz izan, lehenengoak edota hirugarrenak gurean izan duten horrenbesteko indarririk. Halere, industrializazio eta ondorengo desindustrializazio garaien eraginak, modu batean zein bestean, gure paisaian antzeman ditzakegu; askotan konturatzeko ez bagara ere, gurean ere badira industrializazioak ekarri-utzitako eraginaren testigantzak,



Romoko etxe merkeak

bizimodua zein paisaia kontatzen dizkiguten burdinezko lekukoak. Horien artean, eta aurrerago ikusiko dugun legez, Erandion eta Leioan aurki ditzakegu

industria gunerik garrantzitsuenak, eta gainontzeko herrietan ere badira kontuan hartzeko zenbait elementu.

«Bizkaia Zubia, Udondoko zubia e.a. liburuan agertzen diren elementu garrantzitsuak»

Uribe Kostako industriaren lekuko Gurean, industria elementu esanguratsuenetariko bat Bizkaia Zubia da; UNESCOk Giza Ondaretzat izendatua. Horrez gainera, barbarako Udondoko zubi zaharrena Leioa eta Erandion artean dago, eta oso agerian ez egoteak gaur egunera arte gordetzea ahalbidetu du.

Halaber, Urdulizeko Mecanica La



Udondoko Zubiak behealdean burdin-egitura dauka

Peña eta Leioan dauden FAES industria gunek ezin ditzakegu ahaztu.

Eta ezin aipatu barik utzi, Eskuinaldeko langile etxebizitza-eredu garrantzitsu bi: batetik, Erandion dagoen La Esperanza auzoa bera, eta bestetik, Getxon, Romon dauden “etxe merkeak” deiturikoak.

Bestalde, benetan azpimarratzekoak dira Getxoko malakateak ere; ur-hondakinak garbitzeko erabili ziren lehenengo sistemak dira. Sistema aitzindari horien bidez ur-hondakin guztiak Bilbotik ateratzen zituen, Abran itsasoratuz; Getxon dauden 5 malakateak, hain zuzen, hori ahalbidetzen zuten. Herriko toponimian

ere utzi dute euren arrastoa, leku-izen bihurtu dira-eta.

Industrializazioaren indarra

Eskuinaldean bizitako industrializazio-prozesua ez dago alderatzerik Meatzaldean edo Ezkerraldean emandakoagaz. Ostera, Uribe Kostako zenbait gunek ere protagonismoa hartu zuten. Erandion, Asua eta Alzaga auzoetan hain zuzen, garrantzitsua izan zen industria, bertako ontziolak indarra izan zuen-eta. Horrez

«Uribe Kostako industri-jarduera ezin aldera daiteke Meatzaldekoagaz»

gain, Lamiakoko ingurua ere, garrantzitsua izan zen; izan ere, bertan, 1890an Vidrios de Lamiako, Delta fabrika eta Alcoholes de Lamiako enpresak ezarri ziren, garai hartan hasi zen ekintza industrialia. Ondoren, 1930ean, lehen aipatutako FAES enpresa ezarri zen. Ezin ahaztu Leioako Unquinesa ere, hemen plastikoa ekoizten lehena izan zen enpresa. Gainerako herrietan egiteko industria la bigarren maila batean lotu da. ◻

Jabier Puertas > Industri Ondarea eta Herri Laneko Euskal Elkarteko lehendakaria

“Kostatzen zaigu fabrika ondare kulturalagaz lotzea; baina gure historiaren ondare industrialak babestu behar ditugu”

—Zein da, gaur egun, industriaren egoera Uribe Kostan?

—Egoera pixka batt zaila da; Euskadin 90eko hamarkadatik deslokalizazio-prozesuan gaude: enpresek ekoizpena atzerriera eramaten dute, han ekoizpen-kostuak askoz ere baxuagoak direlako. Eskuinaldean ez gara inoiz industriatik bakarri bizi izan, besteak beste: Getxon, hirugarren sektorea da indar gehien daukana; Erandion, gaur egun, oraindik

zelanbaiteko pisua dauka industria jarduerak; Leioan, Lamiako aldean ere, jarduera industrialen bat garatzen da oraindik; baita Urdulizen eta Berangon ere zertxobait geratzen da, oso gutxi bada ere. Ezkerraldeko industria jardueragaz konparatuz gero, erabat eskasa dela antzeman dezakegu.

—Krisiak zelan eragin du?

—Euskadiko ekoizpen-eredua beti izan du harremana jarduera tradizionalakaz:

sidrometalurgia, makina-erreminta e.a. Hala, berriro ere, industria asmatu behar dugu; besteak beste, antza, hori da gobernu barriaren asmoa: Euskadi berindustrializatzea.

—Askotan industria alderdi negatibokaz lotzen da; paisaia itsusia, kutsadura, esplotazioa...

—Betiko eztabaida da. Guk ondare kulturaletik lantzen dugu industria. Baina, normalean, ez daukagu fabrika ondare

kulturalagaz lotzeko joerarik; bai, barriz, eliza erromaniko bat. Kostatzen zaigu industria ondare kulturalagaz lotzea, are gehiago industria langile eta ugazaben arteko gatatzakaz lotzen badugu, edo kutsaduragaz. Argudioei aurre egin eta industriaren ondarea babesteko asmoz, sortu genuen elkarte orain dela 30 urte. Izan ere, 80ko krisiaren ondorioz, gure historiaren parte izan diren elementu industrialak babestea eta zaintzea beharrezkoa zela antzeman genuen. Horrek ahalbidetuko baitu ondorengo belaunaldiek ikastea gure herria ezin dugula ulertu industriak horretan izandako eragina ezagutu barik. Askotan esaten dugu: ezin dugu Euskadi ulertu Deustuko tomateetatik

abiatuta Bilboko Gugenheimera igaroz; bi horien artean denbora-tarte zabala dago, mende erdia gutxi gorabehera, etahorrek ere gure izateko modua azaltzen du. Euskadi botere ekonomiko eta estatu zein Europa mailako erreferente bihurtu zen industria jardueraren garapenari esker. Hori aintzat hartzea ezinbestekoa da, eta horretarako iraganaren barri emon behar dugu elementu arkitektonikoak, teknologikoak e.a. aztertuz. Berriro ere industria guneei erabilera bat emateko... Ez bakarrik ikuspegi industrialetik, bestelako jarduerak ere har ditzakete leku horiek; fabrika bat ixten denean, beti, saiatzen gara gure horri beste erabilera bat ematen; Europako beste herrialde batzuetan legez. ◻





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Irudiz eta Euskaraz

Sareko bitakora bat, 2005etik aurrerako euskal zinemagintzaren gainekoa



Info+: irudizetaeuskaraz.wordpress.com

Beste hainbat aipa daiteke, eta beste horrenbestek euskal zinemagintzaz berba egiten du bere blogean, oster, oraingoan, *Irudiaz eta Euskaraz* izeneko sareko bitakoraren barri emon gura dugu. *Irudiz eta euskaraz. Euskal zinemagintza berria ikertzen. Zineari buruzko bloga da. Blog akademikoa. Dibulgaziokoa. Ikerlariaren topagunea. Zinemazaleen txokoa*, hala definitzen dute egileek: Katixa Agirrek (Gasteiz, 1981; Ikus-entzunezko komunikazioan doktorea, Jaurlaritzako ikerlari postdoktorala) eta Miriam Francesek (Azkoitia, 1989; Publizitatea eta Harreman Publikoetan lizentziaduna). Atzerrian lanean ibili ostean, urte

hasieran itzuli da EHUra, Leioara, askok idazletzat daukaten Agirre. Euskal zinearen inguruko ikerketa batean dihardu gasteiztarrek, NOR taldearen barruan; eta iragan hilean abiatu zuen, Francesegaz batera, euskal zinemagintzaren gaineko interneteko noizbehinkaria. Gunean bertan, euskal zinemagintzari zelan eta nondik begiratuko

«Miriam Francesek eta Katixa Agirrek egiten dute bloga»

dioten ere azaltzen dute: *“Euskal zinemagintza berriari eskainitako bloga duzu honako hau. Urte luzeetan “euskal zinea” definitzerako orduan sortutako eztabaidetatik harago kokatzen gara, gure interesgunea euskarazko pelikulak baitira, hau da, euskal pelikulak zentzu literalean. (...) film euskaldunak dira zentzu literalean, euskaraz eginda baitaude. Eta berria esaten diogu 2005etik hona egindakoan jarriko dugulako gure arreta. Urte horretan, hamabi urteko lehorte esanguratsuen ostean, lehenengoz estreinatuko zelako euskarazko film luze bat areto komertzialean: Aupa, Etxebeste!. Ordutik, euskarazko zinemagintzak susperraldi apal baina esanguratsua bizi du (...) Atzera bueltarik ez duen joera? Horixe ikertzena goaz...”*. Beraz, zale izanez gero, hortxe aukera. ○

The Great Barrier Sopelan

Gorlizko eta Getxoko taldeak **martxoaren 15ean** eskainiko du zuzenekoa Kurtzion



Argazkia: The Great Barrier. www.myspace.com/thegreatbarriergroup

Aitziber Omagogeaskoa (ahotsa, mandolina, gitarra), Inigo Larrazabal (gitarra), Alvaro Barriuso (gitarra), Arkaitz San Martin (baxua), Maria C. Guillen (teklatuak eta perkusioa) eta Claudio Pavanek (bateria, perkusioa) osatzen duten taldeak 2011ko apiril eta ekain bitartean Alberto Maciasegaz Pan-Pot (Bilboson) estudioetan lauzpabost kantuko EP-a grabatu zuten: “Instrumental (Intro)”, “Angels and Demons”, “Really”, “Come back!” eta “When the love goes fine” kantuek, hain zuzen ere. Eskaintza horregaz emandiren bat eskaini eta pasa den urteko

azaroan Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketara aurkeztu ziren. Eta Gorlizko eta Getxoko taldeak Lehiaketaren 24. edizioa irabazi zuen, Pop-Rock atalean. Akustikoa, folk-rocka eta indie etiketaz deskribatu dute taldearen estiloa.

Oraindik The Great Barrieren doinuak eta letrak ezagutzen ez dituztenek zein zaleek uribekostarren doinuakaz gozatzeko aukera izango dute Sopelan martxoaren 15ean. Kontzertua Kurtzio kultur etxean izango da, gaueko 09:00etan, eta sarrerak 5 euro balio du. ○

Info+: www.thegreatbarrier.bandcamp.com

disko barria > Gari

Ez da amaiera disko barria hilaren 8an argitaratuko zuela iragarri zuen legazpiarrek, beraz dagoeneko salgai egongo da Elkar argitaletzeko dendetan. Bakarkako ibilaldian, hau Gariren zazpigarren lana da. Plazaratu orduko, grabaketaren gaineko trailerra eta “Zure bila” abestia *youtube* plataforman ezagutzeko aukera egon da. *Ez da amaiera*-ri dagokionez, diskoaren banatzaile Elkar argitaletxeak jakinarazi duenez, “*erakargarriak dira kantuak, barne-barnetik jaiotzen diren argi indartsuak, imitazina den era moderno eta sentsualean; eta zuzeneko kontzeptu artistiko heldua erabiliko du Gari*”. Jakinarazi duen zuzeneko emanaldietako bat Basauriko MAZ musika zikloan izango da, maiatzaren 24an.

disko-azoka > Bilbon

Hamaika urtean Bartzelonan antolatutako ostean, Madrilen ere antolatzen hasi ziren, eta aurten Bilbon ere prestatzeko erabakia hartu dute; hala, Bilboko Nazioarteko I. Disko Azoka egingo da hilaren 16an eta 17an. Arreta deitzen duen Azoka iragartzeko kartelak Esperantza frontoian egingo dela jakinarazten du. Bertan, hamaika estilo eta hainbat garaitako milaka disko, CD, liburu, *merchandising* eta musika memorabiliako materiala egongo da salgai, antolatzaileen esanetan “munduko denda ezagunenetako batzuen materiala, bilduma zaleentzat aukera parebakoa”. Euskarazko eskaintzarik egongo den ez dute zehaztu...

Info+: facebook.com/feriadediscobilbao

diskoak

E. H. calling
Kaotiko
Baga Biga



Punk eta rock talde ezagunaren zortzigarren lana kalean da. SA taldeko Jimmy-k ekoiztutako diskoa da eta The Clash taldeari “lapurtu dio izenburuaren ideia”, aipatutakoek legez, Kaotiko taldeko kideek ere gauza bera egin gura ei dutelako: “Euskal Herrian hasi eta gainontzeko gizateria gupida gabe mugiarazi...”

Cancer Days
Cohen
Kaiowas Records



20 Minutes to Collapse eta *Subconscious Mind* lanen ostean, Urnietako post-hardcore taldeak hirugarren diskoa argitaratu du, *Cancer Days*. Bateria-jotzailearen aldaketagaz (Iñaki Sanchez) eta hirukote legez datoz gipuzkoarrak. Bartzelonako La Atlantida Studioetan eta Bonberenea Estudioetan (Karlos Osinagagaz) grabatu dute 5 kantuko lan hau.

Hil Aiari
Hil Aiari
Autoekoizpena eta DDT



Odolaz Blai taldearen errautsetatik sortu den Enkarterriko taldeak izen bereko diskoa ekoitzi du. Abiadura handiko rocka oinarri duten 11 abesti aldarrikatzaile eta kritikok osatzen dute estreinako lan hau. *Digipack* euskarriaren kaleratu dute, eta diskoagaz batera marrazki zein grafikez osatutako horma-irudia eskaintzen dute.

uk zure publizitatea hemen!
publiuk@aldizkaria.biz
Tf. 944 911 337

etorri
eta
ikusisi!!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euzko Herria kaleko bar) / Tf. 94 491 68 05 / Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Saizarbitoria gurean


Bere azkeneko nobelaz, **Martutene-z**, berba egiteko gonbidatu dute donostiarra

Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoko (UKIT) otsaileko gonbidatuaren barri emoten zuen aurreko UK-ko atal honek, eta oraingoan, Karmele Jaioren lekukoa martxoan Ramon Saizarbitoriak (Donostia, 1944) hartuko duela iragarri gura dugu. Soziologo eta idazle donostiarrak ibilbide luzea egin du euskal letretan eta hainbat lanengatik sari garrantzitsuak jaso ditu. Euskal literaturazaleari erraz etorriko zaizkio akordura Saizarbitoriaren hainbat lanen izenburuak, berbarako: *Egunero hasten delako* (1969, Lur), *100 metro* (1976, Kriselu), *Ene Jesus!* (1976, Kriselu), *Hamaika pauso* (1995, Erein), *Gorde nazazu lurpean* (2000, Erein), *Rossetti-ren obsesioa* (2001, Erein) e.a. *Kandinskyren tradizioa* (2003, Erein)

«Hilaren 21ean, Algortako Aldai Patronatuan da hitzordua»

nobela plazaratu ostean, 9 urte emon ditu idazle donostiarrak hurrengo idazten, ontzen, osatzen; eta iaz kaleratu zuen ia 800 orrialdeko *Martutene* (2012, Erein). Hala, eleberrri hori da UKIT-koek martxoaren 21ean, 19:30ean, Aldai Patronatuan ipini duten hitzordurako proposatu duten irakurgaia eta berbagaia.

liburuak




Basajaun eta Martin
Y. Arrieta / M. Caballero
Erein

Ataunen jasotako Basajaunen eta Martinen gaineko kondaira eguneratu dute Yolanda Arrietak idatziz eta Maite Caballerok marrazki bidez. Lanaren muina hala laburbil liteke: "Basajaunek etxe berezia egin nahi du muino gainean base-ritarrak biltzeko. Martinek, zelaian. Nola konponduko dira?"



Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944)

Martutene-ren haria bikote burges heldu biren gorabeherak dira; batetik, Iñaki Abaitua ginekologoa eta Pilar medikua, bestetik, Martin idazlea eta Julia itzultzailea, eta haien artera helduko den Lynn, soziologo estatubatuarra dira pertsonaia nagusiak, baina ez bakarrak. Nobela existentzialistat jo daiteke, giza-nortasun eta jarreraren gaineko testuinguruan mamitua dago; badu genero beltzaren prestaketa... Garai eta gertaera errealak islatzeko fikziozko lanketa... Han-hemenka zahartzea, sexua, memoriaren transmisioa, abertzaletasuna, indarkeria, biktimen gaia eta abarren gaineko hausnar-zipriztinak. ○



Gure garaiko heroia
M.J. Lermontov
Elkar

Errusiako prosaren klasikoaren artean dago Jose Morales Beldak itzuli duen Mikhail Juriyevitch Lermontoven (Mosku, 1814-1841) lana. Menturazko nobela psikologikoa da eta "garaiko heroia, azken batean, garaiko eta garaiazen biktima besterik ez da... Gizarteari kritika egiten dio..."

[kirola]

Skate-agaz edonon!

Getxo **Skateboard proiektua** sortu dute, **La Kanterak 25 urte** bete dituenean



Faduran garatu gura dute proiektua, mini-pista eta tailerrakaz

Zaletasun handiko kirola da skate-a Getxon, horren adierazle dira Areetako pista eta Algortako La Kantera pista ezaguna; skate-eskola ere badaukate han. Hain zuzen ere, beterano talde bat dabil Getxo Skateboard proiektua sortzen eta Nekane Irureta taldekideak emon digu haren barri. Azaldu duenez, herriko skater onenak dabilta proiektua sustatzen, berbarako, Alain Goikoetxea eta La Kantera sortu zuten lagunak.

Proiektu honeguz, Udalaren kirol-eremuetan integratu gura dute skate-a; zehatzago esanda, Fadurako kiroldegian: egurrezko arrapala txikia egin gura dute, kirola estalitako eremuan praktikatu ahal izateko urte osoan: "Herritarrentzako zerbitzua da eta urte osoan gozatu gura dugu kirol honeguz, ez bakarrik udan edo euririk ez dabilenean; beharrezana da estalitako skate-pista", dio Iruretak.

Baina beste parte bat ere badauka proiektuak, hezkuntzarena. Ildo horretan, tailerrak egin gura dituzte arrapala kokatuko

den eremu berean, eta horiek erabat lotuta egongo dira kirol honeguz, skate-aren alor danak jorratuz: ikus-entzunezkoak (skate-ari buruzko bideoak egiteko), trukeak atzerriko skater-akaz (daborduko egiten dutena), diseinu grafikoa, egurra tratzea, egiturak mantentzea, e.a.

Horrela, skate-a praktikatu gura ez du-

«Estalitako arrapala txikiagaz batera, tailerrak garatuko lituzkete Faduran»

tenek ere aukera izango dute kirolagaz lotutako ekimenetan parte hartzeko. Gainera, gazteek, etorkizunean beste eremuetan ere baliatu ahaliko dute tailerretan ikasitako dana. Iruretak argitu duenez, adin guztietako pertsonak izango dute lekua Getxo Skateboarden eta, bereziki, neskatoak hurbildu gura dituzte kirol honetara.

Espero dute proiektu osoa datorren ikasturtean abiatzea Faduran, irailean. Horretarako, Udalgaz harremanetan dabilta, Kirol eta Gazteria sailakaz. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Antoine Bastero > txotxongilo-antzerkigilea

“Antzerkia ez da entretenimendu hutsa, komunikazio zuzenerako tresna baizik”

Teleipuina lana eskainiko du Antoine Basterok Getxon martxoaren 24an; Toni La Sal bere pertsonaiaren hirugarren lana da. Getxoztarra da, baina Otxandion bizi da egun. Beste behin, umeentzako ikuskizuna ekarriko du herrira, baina ikusle nagusiek ere izango dute zer ikasi.

—*Teleipuina* lana ekarriko duzu Getxora: Toni La Salek telebista-seinalea ipini behar ei du nagusiaren etxean.

—Errepideko seinaleak ipintzen lan egiten du Toni La Salek eta nagusiak eskatuko dio bere etxean ipintzeko telebista-seinalea. Baina Toni, nahastu eta errepideko seinaleak ipiniko dizkio egongelan. Telebista oso handia da eta seinaleak ipintzeko sartuko da haren atzean: orduan aterako dira panpinak telebistan. Horrela abiatzen da ikuskizuna. Txotxongiloek beren istorioa daukate: lagun-koadrila dira eta beti jolasten dute kalean, harik eta bati gurasoek telebista oparitu eta egun osoa hari begira igaro arte. Kezkatuta, medikuari deituko diote gurasoek. Panpinek ikusleei galdetuko diete zer egin, eurakaz hartu-eman bilatzeko: erantzun oso dibertigarriak emoten dituzte umeek. Galdetuko diete zertan dakiten jolasten, eta orduan antzemango da gaurko umeek jolas gitxi dakitela bideojokoez gain. Horrenbestez, kritika ere badauka lanak eta gurasoei zuzenduta ere badago.

—Ez dugu umeentzako ikuskizun hutsa.
—Ez dakit, Toni La Salegaz beti bilatzen dut hartu-eman ikusleakaz, baita barre egiteko uneak ere, eta kritika sartzen dut. Antzerkia ez da entretenimendu hutsa, komunikazio zuzenerako tresna baizik. Adibidez, lan honetan, azkenean banoa



Info+: www.euskalnet.net/antzezizuna

taula gainetik telebistak eztanda egiten duen unean: konfetiz betetzen da dena eta nahasmena sortzen da, umeak jolasean eta gurasoak atzetik... Nik atzeko aldeetik ikusten dut eta irudi oso polita da. Gero, berritua aterata eta galdetu ohi didate obra amaitu den, eta nik erantzun: ez da ezer amaitzen, bizitza aurrera doa. Nire

“Obra amaieran ateratzen naiz eta galdetzen didate amaitu den, eta nik erantzun: ez da ezer amaitzen, bizitza aurrera doa”

lanak ez baitira amaitzen.

—Hiru hamarkada pasatxo txotxongilo munduan, erretiroa hartzeko asmorik?

—Ez nuke arazorik erretiroa hartzeko, baldin eta norbaitek ordainduko balizkit elektrizitatea, ura, gasa e.a. Kultura-munduan bizi dudana hirugarren krisialdia da oraingoa eta, apurka-apurka, bes-

telako ekintzak eginez, aurrera egin dut: tailerrak emonez, txotxongilo jaialdiren bateko antolaketan parte hartuz e.a. Baina beti txotxongilo munduan, bestela galduko nuke harremana haregaz. Eta moldatu behar izan dut: orain, esaterako, gazteleraz ere egiten ditut antzezpenak hemendik kanpo. Egund 60 bat saio

egiten dut urtean, lehen 100 saiotik gora.

—Zergatik ikusi behar da *Teleipuina*?

—Lan oso polita da, barre egitekoa, esperientzia errepikaezina. Antzerkia da, zuzeneko. Lehengo moduan antzezten dugun apurrak gara, gauza aldatzen ari da, eta aukera ona da antzerkiaren gatzeko. ○

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Basajaun eta Basandere. Ilustrazioa: Daniel Castello

Basajaun eta Basandereren olerkiak

Basoaren eremuan,
oihanaren barnean,
barreak entzun ditut.

Nire hankek
hara eramaten naute.
Beldurtuta nago,
baina kuriositateak
irabazten du borroka.

Enborren artean ikusten ditut
Basajaunen sendi oso bat.
Arra, emea eta bi kume dira,
iletsuak, garaiak.

Nire atzealdean
entzun ditut pausoak.
Bueltatzen naizenerako han dago,
serio, ni begiratzen.

Bospasei metro
neurtuko ditu.
Eta agertu den moduan
desagertzen da
zuhaitzen artean,
ezer esan barik.

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON
 Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
 94 430 01 74
 www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane Tx.
 txakolina
 Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 JATETXEA
 C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA
 Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
 Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



LA LURREN
 GOSARIAK
 PINTXOAK
 KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
 Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

[pintxotan]

Txipiroia eta tipula; itsas aldeko jateko gozo-gozoa



Tipulak sekulako ahogozoa ematen dio pintxoari

Oraingoan ere, Bodeguilla tabernako barrara joan, eta bertan topa dezakegu, besteak beste, pintxoaren artean gozoenetakoa: txipiroiak tipulagaz. Pintxorik eta errazena ez izan arren, pentsatzen dugun baino azkarrago egingo dugu. Hasteko, tipula gorritu behar dugu, horretarako tipula 1 edo 2 erabiliko dugu. Beste aldeetik, eta txipiroiak garbitu ostean, plantxan egingo ditugu; bertan egiteko nahikoa izango dugu olio apur bat botatzeagaz, ondoren. Nahiz eta txipiroiak plantxan egingo ditugun, txipiroien hankak frijitu egingo ditugu. Aukera bi dauka, tipulagaz batera frijitu, eta horrela, txipiroiek tipularen zaporea hartuko dute, edo bestela eurak bakarrik frijitu

eta gero batu. Alde batetik, txipiroiak egin, eta beste alde batetik, tipula eta txipiroien hankak egin ditugunean, osagaiak prest izango ditugu pintxoaren erakitzeko hasteko. Horrela, ogi-xafla gainean, tipula gorritua eta txipiroiak tartekatuko ditugu; txipiroia, tipula, hankak, tipula, barbarako. Azkenik, eta amaitzeko, pintxoaren tontorrean jarriko dugun tipula mandolina batez txiki-txiki egingo dugu, ondoren frijitzeko. Horrek, itxura ederra emango dio itsas aldetik datorkigun pintxoari. Horrenbestez, amaitu orduko, prest egongo gara jatearen plazerragaz gogoz gozatzeko. On egin! ◦

Osagaiak: tipula, txipiroiak, olio




JUAN-MARI
 Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Zurikaldai
 JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
 KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxereriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

zure publizitatea hemen!
publiuk@aldizkaria.biz
Tf. 944 911 337

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Elur artean hasiko dira loreak, udabarria bertan daukagu-eta. Agian orain burua galduko duzu eta zelaieran korrika hasiko zara bitxiloreak batzen...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Zenbat kilometro egingo duzu Korrikan: bi, bost, hoge? Bada, entrenatzen hasi behar duzu, nahikoa erdoilduta zaude-eta! Bestela, hartu bizikleta eta jarraitu jendeari.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Zorionak eta urte askotarako! Eguna ospatzeko lagun danak gonbidatuko dituzu merienda jatera, baina batzuk kontzertu batera joango dira. Hurrengoan ez merienda, ez ezer!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zuri ere zorionak! Aurten ospakizunetarako gogorik ez daukazu eta nabari da zahartzen hasita zaudela. Animatu, lagunak deitu eta ospatu... eta opariak eskatu!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Kantu-eskolek on egin dizute eta askoz hobeto abesten duzu orain. Zale taldea ere badaukazu herrian. Zergatik ez duzu taldea osatzen edo diskoa grabatzen?

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Asteburuan herritik kanpora joango zara lagunakaz: etxea alokatu duzue mendi inguruan. Elur asko bota eta handik ezin ateratu lotuko zarete egun pare bat: aprobeztatu deskantsatzeko.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Mozorro-lehiaketa irabazi zenuten eta orain: saria gozatzera! Zer egingo duzue: bazkaria, txangoa... Originalago izan zaitezke: parapentean hegan egitera joan Sopelara!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Apu bat makal zabilta azken aldia eta triste zaude Korrikara joateko nahiko indar ez daukazulako. Animatu eta jaiki ohetik, baietz indarra atara metro batzuk egiteko!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Hiru bider bakarrik egon zarete alkarrengatik, baina txoratuta zabilta beragaz, burua hodeietan, liluraturata. Begiratu ondo non zapaltzen duzun, golpea egundokoa izan daiteke-eta!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Gustura joaten zara dantza-ikastarora, baina batzuetan lotsatzen zara uste duzulako oso traketsa zarela. Lasai egon, danak zabilzate antzera: onak direnek konpainia handietara jotzen dute...

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Olerki bat idatzi gura diozu, baina gauza gozoegiak besterik ez zaizkizu bururatzen. Eskaiozu laguntza bertsolariren bati, gure eskualde honetan pila bat daukagu!

NEGUA




(Azaroak 16 abenduak 20)
Beriko legez, jaka eta euritako barik urteno zara parrandan, ligatzeko gogoz. Blai eginda itzuliko zara eta bihar amuneari sukarrak jota egongo zara. Hurrengoak aukeratu ligatzeko estrategia hobea...

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Urbe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Bi baino
ez dira
berdinak



gaztetxoak > bilatu eta irabazi

*Noiz etorriko da Korrika
Uribe Kostara?*

- Martxoaren 12an
- Apirilaren 22an
- Martxoaren 22an

La Gusana liburudenda **SARIA**
Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Martxoaren 8an

> Irabazlea: **Peio Lasa***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA *Oinutsik*
kontsulta podologikoa
Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



> Aurrekoaren erantzuna: Kultur Maratila

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu

PILAR BUÑUELEK UTTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO KASINOAN EMAKUMEAK SOLASEAN, 1950

Garai hartan algortarren aisialdirako, Kasinoa zen gunerik garrantzitsuena edo ia garrantzitsuena, baina ez bakarra. "Cervantes cinema" ere bazegoen. Algortako lehen zinema hau, Konporte eta Txiskiena kaleek bat egiten duten kantoian zegoen. Argazkian dagoen Emilia Uribarriren lehengusuena zen, Nikolas eta Juan Uribarrirena.

Kasinoko areto nagusian, mahai baten inguruan, hor ditugu oso gustura emakume algortarrak; emakumeak ez ziren bazkide, baina sarrera guztiontzat zabalik zegoen, bai gizonezkoentzat, bai emakumezkoentzat. Seguru asko Daniel Zubimendik aterako zien argazkia, bera horretan ibiltzen zelako, bai han bai Algortako edozein bazterretan ere. ○

Ezkerretik hasita: Luchy Martinez, Marivi Argaluz, Merche Valdemoro (GB), Emilia Uribarri (1936tik 1944ra Kasinoko atezaina) (GB), Pepita Olatzu (GB), Pilar Buñuel (Emilia Uribarriren alaba).

EDURNE GARMENDIA FERNANDEZ > irrati-esataria

“Errealitatea beti da fikzioa baino ikaragarriagoa”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Alaia eta langilea.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Sukaldean, lan mekanikoa eta sortzailea delako, gauza biak.

Eta zertan ez zenuke jardun gura?

Mekaniko hutsa den edozertan.

Badakazu ohitura txarren bat?

Pila bat, adibidez gauzei buelta gehiegi ematea.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Kafe gabe.

Zein da zure ametsetako bat?

Antzezlan batean parte hartzea.

Parrandarik politenak non?

Inprobisatuak eta lagunekin, non berdin zait.

Eguna ala gaua? Zergatik?

Eguna, askoz gehiago gustatzen zait eguzkia ilargia baino.

Zerk emoten dizu beldurra?

Beldurrak ematen dit beldurra.

Oihukatu duzun azken aldia?

Duela hamar minutu, seme txikienari; beti nabilkio oihuka.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?

Pitzadura kontrolatua daukat: erdi eroa naiz, baina inoiz ez oso eroa.

Irratsaioetan gertatu zaizun gauzarik xelebreena?

Beti gertatzen zaigu zerbait, errealitatea beti da fikzioa baino ikaragarriagoa. Esperientzia oso bereziak gertatu zaizkigu entzuleekin.

Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?

Luis Barcenasi, ea zer astakeria esaten duen. o

LABURREAN— Gaztea irrati ahots ezagunenetakoa da Edurne Garmendia Fernandezena (Ordizia, 1972). Karrera ikasten ari zela bekadun hartu zuten Euskadi Irratian eta handik gitxira hasi zen Euskadi Gaztea katean, orain ia hogeit hamar urte, irrati-kateak hiruzpalau urte besterik ez zuela. Hasieran aste akabuetan, laster hasi zen goizez eta horregatik esaten ei diote irrati-iratzargailu. Joseina Etxeberrigaz batera, Gazteako beteranoenetakoa da, eta segitzeko asmoa dauka Garmendiak: “Batzuetan pentsatzen dut Gaztean aritzeko dagoeneko ez naizela horren gazte, baina Joseina zaharragoa da ni baino eta bera hemen egon bitartean, ni ere aurrera!”.

Jon Zubiaga & Sonia Villamor
Peru Magdalenak idatzia

Pisukideak

Komedia
Garaikidea

NON:
ERANDIO,
Altzagako
azoka zaharra

EGUNA:
Martxoak 19

ORDUA:
20:00

SARRERA:
DOAN

SALGAI
ETXEGABE INMOBILIARIA
656 765 666

18.korrika **æk**

KULTURALA



kosta ahala kosta
URIBE KOSTA!

LURRALDE
ANTOLAKETARI
ETA
HIRIGINTZARI
BURUZKO
JARDUNALDIAK

MARTXOAK
14, 15 eta 16

MARTXOAK 14, OSTEGUNA
19:00 | SOPELA | KURTZIO KULTUR ETXEA

- + Uribe Kostako bilakaera urbanistikoa
- + Lurralde Antolaketarekin lotutako borrorak Uribe Kostan: Lamiako-ko Makroaraztegiari ez!, Txipio Bai!, PTPrik ez! eta Antinuklearrak Lemoiz.

MARTXOAK 15, OSTIRALA
19:00 | ALGORTA | VILLAMONTE KULTUR ETXEA

- + Hiri Eredua: Etxebizitza, espazio publikoa, gizartea eta ekonomia
- + Hondakinen kudeaketa eta Lurralde Antolaketa
- + Hirigintza genero ikuspegitik: Hiria Kolektiboa
- + Antolaketa eta Lehen Sektorea Uribe Kostan: Uribe Kostako Agroasanblada

MARTXOAK 16, LARUNBATA
10:30 | URDULIZ | KULTUR ETXEA

- + Hirigintzan eta Lurralde Antolamenduan parte-hartzeko mekanismoak: ohikoak eta berritzaileak
- + Adibideetatik ikasiz
- + Erronkei aurre egiten: Zer behar dugu Uribe Kostan?



ehbildu
uribe kosta